

Martin Otxoa de Kapanaga

DOTRINEA

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Bertsio elektroniko honen egilea: Josu Landa Ijurko.

Iturria: *Capanagaren dotrinea*. Martin Ochoa de
Capanaga (Edward Spencer Dogsonen edizioa). Vizeu,
1893.

<http://klasikoak.armiarma.com/>

KAPANAGAREN DOTRINEA

(24 Vinsonen Bibliographian 24)

Peseta Bana

VIZEUN:

J. Alfonso da Costaren moldiztegia,
1893 Urteko Lotasillan.

EXPOSICION BREUE

de la doctrina christiana
compuesta por el P.M. Geronimo de Ripalda
de la compañia de Iesus.

N.S. de Vribarri de la Villa de Durango.

Con licencia en Vilbao, por Ivan de Azpiroz Año
de 1656.

Con el examen de conciencia, y acto de contricion. Exercicios quotidianos. Significaciones de los ornamentos sagrados. Y misterios de la Missa, sacado todo de diuersos autores. Y traducido del language castellano al bascongado por el licenciado Martin Ochoa de Capanaga Clerigo Presuitero beneficiado de la ante Iglesia de Mañaria, y maestro de gramatica en la Villa de Tauria de Durango.

Dedicado al Illustrissimo Señor don
Ioan Ioariz y Echalaz Obispo de
Calaorra y la Calçada, del consejo
de su Magestad, &c.

**AL ILLUSTRISIMO SEÑOR
DON IVAN IOANIZ Y ECHALAZ,
Obispo de Calahorra y la Calçada,
y del Consejo
de su magestad, &c,
en su idioma natural**

Leenagoko denporetako Jentilak iauna (esan gura dot) ez eukenak laungoiko egiazkoen ezauterik, zireanak doktoak, eta iakinak euren lege falsoan, zeinda gordetan ebeen ain piedade andiagaz, zeinda banidadeagaz, ofrezidu baeroren primiziak eureen laungoiko falsoai, aurrera igaro zidin tropeza бага eureen Doktrinea, zein negaz emon zituezan legeak eauren erriai, liburuak eskolai, Armahak soldaduai, artea, eta modua ofizialeai; zerren uste ebeen oneen faboreagaz tropezu, eta inpedimentu бага etorkizuneen memoriara igaroko zala. Nori bada nik ofrezidu al neio obran, ez Jentileen legea, bae bai laungoiko egiazkoen deklaratan deben Dotrinea, ezpada zure Señoria Ilustrisimeari; eta daukat konfianzea, ikusirik (segun nik uste dodan) izan-

go dala ain probetxu andikoa, igaroko dala segu-
ru zure Ilustrisimeen anparuen bean; baktotxak
artuten dabela bere esean boroudategaz, amu-
dioagaz, eta kontentu andiagaz, uste dabela
(dana legez) daroeala dote andi bat humeenda-
ko; zerren erria izanik ain banatua, eta daukana
etsagunzaak ainbat montaña, eta atx artean,
zeinda akudidu ezin leien ainbat bider, zein bear
leukeen etxeetara, euren maisu, eta kura iaunak
dotrinea irakasi al leien, faltoso onetan egotea
ezta marabilla, baea; izanik urietan, esagunzee-
tan gitxi irakurten eztakienak, liburu onegaz
edugiko dau baktotxak bere etsean maestraua ira-
kasiko deusana, zer egin bear daben, errazoena
zer dan iakin dagianerean, eta laungoikoari Ari-
mea emon degion artean. Eta, dagoana legez
asko ainbat borondate, eta karidadekoak, uste
dot eze, edoalabere neguko gau luzetetan, etxirik
mumuraziñoari (laungoikoen ain ofensa andia)
eta beste alperreko berbai, aprobetxaduko dire
ala dotrina onegaz seinai, kantaadueraginagaz,
eta, insaur bana edo kastaña bina emonagaz,
zerren san Ziprianok a Donatum diñoana legez,
admonetu omnis aetas auditu, edozeinbere eda-

dek enzuna artuten, eta ikasten dabela. Alan iauna ni izanik zure señoria Ilustrisimeen Kape-llaurik txeeena erreguetan deusat ez mobidurik beste gauzagati ezpada arimeen probetxuagati, artu dagiala borondate au bere anparuen bean. Alan daukat konfianzea zure Ilustrisima Señoriak faboreziduko dabela bein berorren bosoetara egozi ezkerro. Zeinen bizizea gorde degigun laungoiko guztiz poderosoak, bere birtute, eta letraak merezidu dabeen premioagaz zeinda izango da ene borondateak deseadu al leian baño andiagoa.

C. M. D. V. S, Illustrissima

El Licenciado Martin Ochoa
de Capanaga

El la Ciudad de Santo Domingo de la Calçada à nueve de Diziembre de mil y seiscientos y cinquenta y seis años: sus mercedes de los Señores licençiadados don Andres de Vitoria, y el licenciado don Pedro de Ocio prouissores, y Vicarios gene-

rales en todo este Obispado, por las sanctas Madres Iglesias, sede bacante habiendo visto lo pedido por el licenciado Martin ochoa de Capanaga, clerigo presbitero, Cura, y beneficiado en la ante Iglesia de Mañaria en raçon de que se le de licencia para que pueda vssar, y vender vn libro de la doctrina christiana, que traduxo de lengua Castellana a la bascongada, para que en el señorío de Vizcaya se instruïessen per el los fieles, que no sauian romanze, y la dicha traslacion esta vista, y examinada, en virtud de licencia dada por su señoria Illustrissima, don Ioan loanez Echalaz de buena memoria, Obispo, que fue deste Obispado, por personas doctas, como consta de la informacion por su parte presentada: visto ansimismo dicha informacion, y lo demas, que ver se deuia, dixeron que atendiendo a que el dicho libro es muy vtil y prouechoso para el seruicio de Dios, y de los fieles, y que esto a constado de la declaracion de hombres doctos, daban, y dieron licencia a el dicho licenciado Capanaga, para que pueda vender los mil y quinientos cuerpos, que dize estan Impressos, y los demas que fueren nesesarios, y dellos se

vsse, sin incurrir en pena alguna, y sus mercedes tasaron cada pliego de los del dicho libro a cinco marabedis, atendiendo a el coste de la impresion, y los demas que se an caussado en pronerse en perfeccion el dicho libro, y su trabajo, y por este su auto assi lo mandaron, y firmaron. I mandaron que ninguna persona, sino es el dicho licenciado Capanaga venda ni distribuya dichos libros, sino, es que sea con su poder, o en casso de su muerte sus herederos, pena de escomunion mayor y de cinquenta ducados para gastos de guerra contra infieles.

El licenciado Vitoria.

Licenciado don Francico
de Ocio.

Ante mi Antonio Martinez
de lenguas.

PROLOGO AL LECTOR

Suplico al lector prudente, reciba esta buena voluntad no para censurarla, sino para aproue-

charse, ò enseñarla, no reparando, en muchos verbos y nombres, que como estan en romance sin corromperse del latin, assi estan del romance reciuidos en el basquence, de suerte que apenas se halle otro modo de decir sino por muchos rodeos y de la misma suerte juzgo hallara otras muchas faltas en el mismo basquence, porque mi deseo no ha sido sino solo dar à entender la doctrina en nuestro lengoaje comun, asi le de Dios nuestro señor buen fin Amen.

[DOTRINEA]

Kristiñau guztiak dagoz obligadurik, kristo gure iauneen Kuruze sante agan edugiten debo-ziñoa, bioz guztirean, zerren an gura eban erio-zea artu, gu erredimietarren geure pekatuaga-nik, eta arerio deungeaganik, eta alan egin bear doguz. Kuruzearen señalearaz, zeñazen gareala, iru + leelengoa bekokian, laungoikoak libradu gagizan pensamentu deungaetarik, Bigarrena ahoan, zerren laungoikoak gorde gagizan berba deungaetarik. Irugarrena, bularretan, zerren laungoikoak gorde gagizan, deungaro egiteaga-nik. Esaten dogula, modu onetan, Kuruze san-tearen señalearaitik + geure + arerioetarean libradu gagizuz + geure launa eta laungoikoa + Airearen, eta semearen, eta espiritu santuen ize-nean. +

Amen Iesus.

Paternosterra

Pater noster, aita gurea zeruetan zagozana santifikadu dila zure izena, betor gugana zure

erreñua, egin bide zure borondatea zelan zeruan,
alan lurrean, geure ogi egunean eguneangoa,
egun iguzu; parkatu egiguzuz geure zorrak,
zelan geuk parkaetan deustegun geure zordu-
nai. Etxi ze egiguzu iautzen tentaziñoan, baea
gagiguz launa gatzerean libradu.

Amen Iesus.

Abe Maria

Abe Maria, graziaz betea. launa da zugaz,
bedeinkatea zara zu andra guztien artean, eta
bedeinkatua da zure Sabeleko frutua, Iesus.
Santa Maria, laungoikoaren amea, erregutu
egizu gu bekatoriokgaiti, orain, eta, geure erio-
zako orduan.

Amen Iesus.

Kredoa

Sinisetan dot laungoiko aita guztiz poderoso-
agan zeruen, eta lurraren kriadoreagan, eta Iesu
Kristo aren seme bakotx geure iaunagan, zein
sortu zan, espiritu santuen birtutez eta iaio zidin
Maria Birjineaganik, padezidu eban Ponzio Pila-
tosen podereen bean, izan zan kruzifikadua ila,

eta beatua, jatxi zidin Infernuetara, eta irugarren egunean erresuzitada zidin ilaen arterean. Igo eban zeruetara, eta dago iasarririk Aita laungoiko gustiz poderosoen alde eskoatati, arean etorriko da, ilaen, eta bizien iuzgaetara. Sinisetan dot espiritu santu launagan eta dala Elexa santa katolikea, santuen Komuniñoa, pekatuen parkaziñoa, aragien erresurreziñoa, eta sekulako bizi-zea.

Amen Iesus.

Salve Regina

Erregiña, eta ama miseriakordiazkoa bizizea, eta dulzurea, salbe esperanza gereaa zure deiiez gagoz. Ebaren hume desterraduok zugana gagoz. Zizpuruka, llantu, eta negar egiten dogula, negarrezko erri onetan eaa bada erregutalea biortu egizuz gugaña zeure miseriakordiazko begiok eta desterru au igaro eta erakuskuzu Iesu Kristo zeure sabeleko frutu bedeinkatua. O Klemenziasko ama, o piadosea, o dulce beti Birjina Maria laungoikoaren ama santea erregutu egiozu gugaitik merezidu daiguzan Kristoren promentimentuak.

Amen Iesus

Mandamentuak

Mandamentuak dira amar. Leelengo irurak pertenezietan iakaz laungoikoen onreari. Beste zazpirak proximoen probetxuari.

Leelengoa da laungoikoa amaetea gauza guztien ganean.

Bigarrena eztagigula iuramenturik nezesidade bagarik.

Irugarrena Domeekak, eta iaiak gordeetea.

Laugarrena aita eta ama onraetea.

Bostgarrena, eztagigula iñor il.

Seigarrena, eztagigula aragiazko pekaturik.

Zazpigarrena eztagigula ezer onstu.

Zorzigarrena eztagigula lagunari falso testimoniorik ezarri, eta eztagigula guzurrik esan.

Bederazigarrena eztagigula deseadu laguneen senarrik, eta emazterik.

Amargarrena eztagigula deseadu laguneen gauzarik.

Amar Mandamentu oneek enzerraetan dira Mandamentu bitan. langoikoa amaetea gauza guztiez ganean, eta proximoa bere burua legez. Amen.

Fedeko Artikuluak

Fedeko Artikuluak dira amalau. Leelengo zazpirak, pertenezietan iakaz launaren dibinidadeari, beste zazpirak pertenezietan iakaz Kristoen humanidade santeari

Dibidinidadeari pertenezietan iakazanak dira oneek:

Leelengoa sinistu laungoiko baten guztiz poderosoagan.

Bigarrena sinistu dala aitea.

Irugarrena sinistu dala semea.

Laugarrena sinistu dala espiritu santu launa.

Bostgarrena sinistu dala Kriadorea.

Seigarrena sinistu dala salbadorea.

Zazpigarrena sinistu dala glorifikadorea.

Humanidadeari pertenezietan iakanak dira oneek:

Leelengoa sinistu Kristo gure launa gizon zan partez sortu zala Birjinearen sabelean espiritu santu iauneen birtutez.

Bigarrena sinistu iaio zala Maria Birjineagantik, donzella zala iaio baño leenago, iaiakeran eta iaio ezkerro.

Irugarrena sinistu artu ebala passiñoa, eta eriozea gu bekatariok salbaetarren.

Laugarrena sinistu iasi zala infernuetara, eta atera zituzala arimaak aita santu begira egozaneenak aen etorrera santuari.

Bostgarrena sinistu irugarren egunean bizitu zala ilaen arterean.

Seigarrena sinistu igo ebala zeruetara eta iasarririk dagoala Aita laungoiko guztiz poderosoen alde eskoatari.

Zazpigarrena sinistu etorriko dala iudizioko egunean iuzgaetan ilak, eta biziak onai emaiteko bere gloria zerren gorde zituezan aren Mandamentuak, eta gestoai sekulako penea zerren gorde ez zituezan aren Mandamentu santuak.

Mandamentu elexakoak

Ama elexa santearen Mandamentuak dira bost.

Leelengoa meza osoa enzutea Domekeetan, eta iaietan.

Bigarrena konfesaatea edo alabere urtean bein edo leenago eriozako pelibururik bada, edo artuko bada Sakramento komuniokoa.

Irugarrena komulgaatea Paseo erresurreziñotan.

Laugarrena barau izaitea, ama elexa santeak aginetan dabenean.

Bostgarrena, amarrenak, eta premiziak pagaatea.

Amen Iesus.

Sakramentuak

Ama elexa santearen Sakramentuak dira Zazpi.

1. Baptismua.
2. Konfirmaziñoa.
3. Penitenzia.
4. Eukaristia.
5. Oleaziñoa.
6. Ordena sazerdotala.
7. Matrimonioa.

Miserikordiazko obraak

Miserikordiazko obraak dira amalau, leenen-
go zazpirak dira espiritualak, beste zazpirak gor-
puzekoak dira.

Zazpi espiritualak dira oneek:

Leelengoa irakasi eztakianari.

Bigarrena konseju emon bear dauenari.

Irugarrena korrejidu erraturik dabilena.

Laugarrena injuriak parkatu.

Bostgarrena tristea konsoladu.

Seigarrena sufridu pazienziagaz laguneen
flakezaak.

Zazpigarrena erregutu laungoikoari ilakgaitik
eta biziakgaitik.

Oneek zazpi gorpuzekoak dira:

Leelengoa bisiteetea gexoak.

Bigarrena iaten emaitea gose danari.

Irugarrena edaten emaitea egarri danari.

Laugarrena katigu dagoana Mauru errian
erraskateetea.

Bostgarrena billoszik dagoana ianzitea.

Seigarrena pobre bidezkoai ostatua emaita.
Zazpigarrena, ilak beatutea.

Pekatu mortaluk dira zazpi

1. Soberbia.
 2. Abarizia.
- Irugarrena, luxuria.
Laugarrena, irea.
Bostgarrena, gulea.
Seigarrena, inbidia.
7. nagitasuna.

Oneen kontra dagoz zazpi birtute

Soberbiaren kontra, humildadea.
Abarizien kontra, largezea.
Luxuriaren kontra, kastidadea.
Irearen kontra, pazienza.
Gulearen kontra, abstinenzia.
Inbidiaren kontra, karidadea.
Nagitasuneen kontra, dilijenzia.

Arimearen kontrako arerioak dira iru

1. Da Demonioa.
2. Da mundua.

3. Da aragia.

Birtute teologalak dira iru

1. Fedea
2. Da esperanza
3. Da karidadea

Birtute kardinalak dira lau

1. Prudenzia.
2. Iustizia.
3. Fortalezeta.
4. Tenplanzea.

Gorpuzeko sentiduak dira bost

1. Begiakaz ekustea.
2. Belarriakas enzutea.
3. Aoagaz gustaetea.
4. Surrakaz usain egitea.
5. Eskuakaz ukitutea.

Amen Iesus.

Arimearen potenziak dira iru

1. Memoria.
2. Entendimentua.
3. Borondatea.

Espiritu santu launaren doeak dira zazpi

1. Doea, sabiduriena.
2. Doea, entendimentuena.
3. Doea, kunsejuena.
4. Doea, zienziena.
5. Doea, fortalezeena.
6. Doea, piedadeena.
7. Doea, laungoikoaren Bildurrena.

Espiritu santu launaren frutuak dira amabi

1. Karidadea.
2. Bakea.
3. Longanimidadea.
4. Beninidadea.
5. Fedea.
6. Kontinenzia.
7. Gozoa.
8. Pazienza.
9. Bondadea.
10. Manso izaitea.
11. Kastidadea.
12. Kastidadea.

Pekatu beniala parkaetan da bederazi gauzagaz

1. Meza enzuteagaz.
2. Komulgeeteagaz.
3. laungoikoen berbea enzunagaz.
4. Obispoaren bendiziñoagaz.
5. Paternosterra esanagaz.
6. Ogi bedeinkatuagaz.
7. Ur bedeinkatuagaz.
8. Konfesiño jeneralagaz.
9. Bularretan golpe emonagaz, pekatuen gar-
baiaagaz.

Bienabenturanzak dira zorzi

1. Bienabenturaduak dira eureen espiritua-
gaz pobre direanak, zerren aendako da zeruko
erreñua.
2. Bienabenturaduak dira manso direanak,
zerren aek izango dira lurreen iabaak.
3. Bienabenturaduak dira negar egiten
dabeenak, zerren eurak konsoladuak izango
dira.
4. Bienabenturaduak dira, miserikordiosoak,
zerren aek alkanzaduko dabee miserikordia.

5. Bienabenturaduak dira justiziaren egarria, eta gosea daukeenak, zerren aek aseko dira.
6. Bienabenturaduak dira bioz garbikoak, zerren oneek ikusiko dabee laungoikoa.
7. Bienabenturaduak bakesoak: zerren ai deiengo iatee laungoikoen semeak.
8. Bienabenturaduak dira persegiduak iustiziagaitik; zerren aenzat dago zeruko errenua.

Konfesiñoa

Ni bekatariau konfeseetan natxatxo laungoiko gustiz poderosoari, Andrane Maria beti birjineari, landone Mikael arkanjeleari, laundone Batisteari, Aprostu santuai, landone Periagaz san Pablori, eta osteranzean zeruan direan Santu guztiai, eta zuri aita espiritualorri, zerren bai negian pekatu grabemente pensamentuagaz, berbeagaz, obreagaz. launa enea da errua, launa enea da errua, launa enea da erru guztia, onegaitarren erregetan deusat andrane Maria Birjineari, landone Mikael Arkanjeleari, landone Batisteari, Aprostuai, laundone Periagaz san Pablori, eta zeruko santu guztiai, eta zuri

aita espiritualorri erregutu dagizula nigaitik laungoikoari.

DOTRINA KRISTIÑAUEN GANEAN

KAP. I

Kristiñauen izeneen eta señaletan ganean

P: Kristiñaua bazara?

R: Bai Iesu Kristo geure launeen graziagaz.

P: Zer esan gura dau kristiñaua?

R: Gizona daukana Kristoen fedea zein konfesadu, era profesadu eban Baupismuan gordeetako.

P: Nor da Kristo?

R: Jaungoiko, eta gizon egiazkoa.

P: Zelaan da laungoikoa?

R: Zerren dan seme naturala aita laungoiko biziena.

P: Zelan da gizona?

R: Zerren dan birjineen semea, aen sabel santan artu ebalako aragia.

P: Zergaitik dertxo Kristo?

R: Unio, eta Kunplimentu graziazko daukanagatik, guztien ganean.

P: Kristo au da mesias egiazkoa?

R: Bai launa agindurik egoana legean, eta profeteetan.

P: Aen ofizio leelengoak, eta prinzipaleenak, zeinzuk izan zirean?

R: Salbadoreen, eta maestruenak.

P: Ze dotrina irakasi eban?

R: Dotrina kristiñauena.

P: Dotrina kristiñauenak zeinbat parte daukaz?

R: Lau prinzipaleenak, eta leelengoak.

P: Zeinzuk dira?

R: Kredoak, mandameutuak, oraziñoak eta Sakramentuak.

P: Zein da insignia, eta señailea kristiñauena?

R: Kuruze santea.

P: Zegaitik.

R: Zerren dan figurea Kristo Kruzifikaduena, zeinetan, erredimidu izan genduzan.

P: Zelan useetan dozu kuruze onegaz.

R: Señaleetan naxala onegaz.

P: Ea ikusi daigun zelan.

P: Kuruze santearen señaleagatik, &c.

P: Nox da ondo usaetea kuruze santa onegaz.

R: Beti asi daigunean obraren bat edo ikusi daigunean geure buruau nezesidaderen baten.

KAP. II

Kristiñauen obligazinoak zeinzuk direan

P: Zer da kristinaua obligadu leelengo egiten.

R: Bilatu fin prinzipala zetarako sortu zan.

P: Ze finetarako sortu zan.

R: laungoiko onnipotentea serbietako, eta aen majestadea gozeetako.

P: Ze obragaz laungoikoa serbietan da geien.

R: Fede, esperanza, eta karidadeko obraakaz.

P: Zer irakasten deusku fedeak.

R: Sinistu daigula laungoikoagan, egia puru, engañu bako agan legez.

P: Zer irakasten deusku esperanzeak.

R: Aen majestadeagan edugi dagigula geure
esperanza, podere fin bakoagan legez.

P: Zer karidadeak.

R: Amadu dagigula izan al giñaian ondasunik
andiena legez.

P: Zelan iakingo dogu Kredoan, eta fedeko
Artikuluak.

R: Ondo entendiguagaz Kredoan, eta fedeko
Artikuluak.

P: Zelan esperanza edugiten eta eskeetan.

R: Ulertuagaz ondo paternosterra.

P: Zelan obraetan.

R: Ulertuagaz ondo Mandamentu, gordeko
doguzanak, eta Sakramentu, artuko doguzanak.

P: Beraz obligadurik gagoz iakiten, eta ulerre-
tan ori gusti ori.

R: Bai iauna zerren obratan ezin ifini giñai
iakin bagarik.

KAP. IÑ

Kredoen ganean

P: Esazu Kredoan.

R: Credo yn Deum, sinisetan dot, &c.

P: Zer esan dogu orain.

R: Kredoa.

P: Nok egin eben Kredoa.

R: Apostoluak.

P: Zetako.

R: Fedea erakusteko.

P: Eta guk zegaitik esaten dogu.

R: Fedean konfeseetako, eta onetan indar geiago euteko.

P: Zelan dira ziurtu fedeak erakusten deusku-zan gauzaak.

R: Ainbat zeinda egiak laungoikoen esanak, zein, eta engañadu ezin leidin, eta ez gu engañadu.

P: Zelan dakizu zuk laungoikoak esan zituza-na?

R: Ama eleza santeaganik zein goberneetan daben espirito santo iaunak.

P: Ze modutan bear doguz sinistu.

R: Ain modutan zein fede au bagarik iñor ez iustu izan, ez salbadu leitean.

P: Eta al baleite fedeagaz bakarrik.

R: Ez iauna karidade, eta obra on bagarik.

P: Kredoa, eta artikuluak gauza bat dira.

R: Bai iauna.

KAP. IV

Artikuluenganean

P: Esan egizuz fedeko artikuluak.

R: Fedeko Artikuluak dira amalau, &c.

P: Zer dira federo artikuluak.

R: Fedeko misterio prinzipaleenak.

P: Esan zenduan eze leelengoa zala laungoikoagan sinistutea: nor uste dozu dala laungoikoa?

R: laun bat guztiz sabioa, ona, daukana poderio guztia, prinzipio, ta fina gauza guztiena.

P: laungoiko au da persona bat bakarrik.

R: Ez iauna, dira iru, eta guztian igolak.

P: Norzuk dira.

R: Aitea, eta semea, eta espiritu santu iauna.

P: Aitea laungoikoa da.

R: Bai iauna.

P: Semea da laungoikoa.

R: Bai iauna.

P: Espiritu santua da laungoikoa.

R: Bai iauna.

P: Benturan dira iru laungoiko.

R: Ez iauna ezpada bat, esenzian da izaitean, eta iru personaetan.

P: Dauko laungoikoak gorpuzeen erudia gu legez.

R: Ez laungoikoa dan partez, zerren dan espi-ritu purua, baea bai gizona dan partez.

P: Zelan da laungoikoa guztiz poderosoa.

R: Zerren bere borondateagaz egiten daben gura daben guztia.

P: Zelan da kriadorea.

R: Zerren egin zituzan gauza guztiak ezer bere ezerean.

P: Zelan da laungoikoa Salbadorea.

R: Zerren emaiten deuskun grazia, eta par-kaetan deuskuzan pekatuak.

P: Zek mouietan dau grazia guri emaiten.

R: Bere oneen andiak, eta Kristoen merezi-mentuak.

P: Zer da grazia.

R: On izaite bat zeinek egiten gaituz laungoi-koaren seme, eta aen glorien erederu.

P: Ze ondasun etorten iaku grazia onegaz.

R: Poderea edugitea, eta borondatea obra onak egiteko laungoikoen aurrean, zeinzuk, eta satisfazidu al daien, eta geiago merezidu.

P: Ze modutati alkanzaetan da grazia, eta doa aziaz alkanzadu ezkeror.

R: Oraziñoagaz, edo Sakramentuakaz, edo exorzizio Birtutekoakaz.

P: Zelan da laungoikoa glorifikadorea.

R: Zerren emaiten daben gloria bere grazia-rean urtaiten eztabenari.

P: Eta Purgatoria doazanak norzuk dira.

R: Ilten direanak grazian, zor dabeela penaren bat euren pekatuakgatik.

Umanidadelo Artikuluen ganean

P: Humanidade santuen ganean itaunetan deusut, Trinidadeko iru personeetarean zein gizon egin zan.

R: laungoiko aita eternoen semea.

P: Zelan sortu zan barriro oster a Birjineen sabel santan izanik eternoa, eta fin bakoa.

R: Artuten ebala gorpuza eta arimea, ez gizonen obraz, baea bai mirakuruz.

P: Zelan iaio al zaatean Maria Birjineaganik.

R: Ez naturalezeagaz konforme baea bai mirakuruz.

P: Eta amea beti bizi izan zan Birjen eta donzella.

R: Bai iauna beti.

P: Zegati laungoikoa egin zan gizon.

R: Eriozea arzaitarren gizonagaiti, eta exenplua ari emaitarren.

P: Zegaiti eriozea artu gura izan eban.

R: Gu erredimietarren pekaturean, eta librazarren eriozarean.

P: Zelan iausi giñean onetan.

R: Adan gure leelengo aitag pekatu eginagaz zeinetan guztiol iausi ginean.

P: Bada eriozea artu bada ezin laungoikoak idoro eban beste modu bat?

R: Bai baea egokun obatoago modu au, beste guztiak baño.

P: Izanik laungoikoa inmortal artu eriozea ezin leiana, zelan eriozea artu al leukean.

R: Zerren laungoiko, il zanagaz zan gizona, eta alan zan eriozea artu leukeana.

P: Zegati geiago eskogidu gura izan eban kuruzeko eriozea.

R: Zerren zeinbat afrontu geiagokoa zan, eta pena geiagokoa, izan zan merezimentu, eta gloria geiagokoa.

P: Diñozuze iasi zala Infernuetara, zer ulerretan dozu Infernuakgaitik.

R: Lau leku arima zerura eztoazaneenak.

P: Zeinzuk dira.

R: Leelengoa kondenaduenak, ilten direanena pekatu mortalean. Bigarrena seiñeena, ilten direanak Bautismoa бага. Irugarrena Purgatorioa, daukeneendako an zer purgadu. Laugarrena egoana iustuendako, pekatuak purgadu ezkerro; zeinetan egozan deposituan legez.

P: Zeiñetara iasi zan Kristo gure iauna.

R: Iustuak egozanera.

P: Zelan iasi zan.

R: Arimeagaz, bat eginik, eta unidurik egoala dibinidadeagaz.

P: Eta zelan gelditu zan gorpuza sepulturan.

R: Unidurik egoala, eta bat eginik dibinidadeagaz.

P: Zelan erresuzitadu izan zan?

R: Ostera batu, eta iuntadurik arimea, eta gorpuz gloriosoa.

P: Zelan igo eban zeruetara?

R: Bere birtuteagaz, eriozeen bildur бага, eta ostera il ezin leitean moduan.

P: Zelan ulerretan dozu dagoala iasarririk aiteen alde eskoatoti?

R: Zerren daukan gloria iguala zeinda aiteak, laungoiko dan partez, eta gizon dan partez andiagoa, zeinda bestek edugi al leian.

P: Zelan erresuzitaduko gara ludizioko egunean.

R: Biortuten direala, eta batuten, gure gorpuz propioak euren arimaakaz biziza erioza бага, eta sekulakora.

P: Zer sinisetan dozu esaten dozunean, sinisetan dut santuen komuniñoa.

R: Fiel kristiñau bazuk daukeela parte beste ondasuneetan gorpuz baten mienbruak daukeena legez.

KAP. V

Pater nosterren ganean

P: Esazu Pater nosterra.

R: Pater noster aita gurea, &c.

P: Nok ordenadu eban Pater nosterren oraziñoa.

R: Iesu Kristo berak Apostoluak eskatuagati.

P: Zetarako ordenadu eban.

R: Oraziño egiten irakasteko.

P: Zer da oraziño egitea.

R: laungoikoagana arimea eregitea mese-deak eskazeko.

P: Zegati irakasi euskun launak aita deiegiten.

R: Eskatu gagiozan semeen amudioagaz.

P: Zelan gara semeak.

R: Beraganik artu gendualako izaitea, eta grazia.

P: Zegati diñogu gurea.

R: Zerren anaie onak leger eskatu gaitezan guztiok guztiendako.

P: Patornosterra esaten dozunean nogaz berba egiten duzu.

R: laungoiko omnipotente geure aitagaz.

P: Nun dago laungoiko gure aitea.

R: Leku gustietan, izaiteagaz, egoteagaz, eta podereagaz.

P: Zegati bada esaten dozu, dagoala zerue-tan.

R: Zerren zelan aspertuten dan, eta erakus-ten dan klaru, bera dana legez.

P: Zeinbat petiziño daukaz Paternosterrak.

R: Zazpi, guztiak ifinirik ordena andian.

P: Ze ordenagaz.

R: Iru leelengoak doaz artez, eta begirazen dabee laungoikoen honreagati, eta beste laurak proximoen probetxuagati.

P: Zer eskaetan gara aetan.

R: Abundanzia ondasun guztiena, eta erreme-dioa gatz gustiena.

P: Zeen eske zara, esaten dozunean santifi-kadu bidi zure izena.

R: Izan dila aen majestadea alabadu, eta erreberenziadu.

P: Zer eske zara esaten dozunean betor zure erreñua gugaña.

R: Egon didila aen majestadea gugan, orain graziagaz, gero emon deigula bere erreñua.

P: Zeen eske zara, esaten dozunean, egin bidi zure borondatea, alan lurrean nolan zeruan.

R: Gizonak egin dagiela aen majestadeen borondatea, ain bioz osoagaz zeinda angeruak zeruan.

P: Zer esan gura dozu, diñozunean egunean eguneango geure ogia egun iguzu.

R: Emon deigula sustentu bear doguna arimarako, eta gorpuzerako.

P: Zegati eskeetan ez zatxakoz egungo ogien baxen?

R: Beti bearrean gagozan egunean eguneangoa eskeetako.

P: Zer eske zara diñozunean parkatu egiguz geure zorrak.

R: Geure kulpak parkatu degiguzala, eta aekgati zor dogun penaak.

P: Zegati esaten dozu zelan geuk parkaetan deustagun geure zordunai.

R: Zerren laungoikoak parkatuko ezteusan besteri parkaetan ezteusanari.

P: Zeen ezke zara diñozunean etxi ze egiguzu tentaziñoan iausten.

R: Etxi ze dagigula konsentimenturik emaiten.

P: Zein gatzxerean esaten dozu, libradu gatzala gatz gustietarik.

R: Demoniuaganik, infernuaganik, eta beste desgrazia guztietarik.

KAP. VI

Beste oraziñoen ganean

P: Dago beste oraziñorik Paternosterrez ostan.

R: Bai iauna, eskriptureenak, elixeenak, eta santuenak.

P: Zein da oraziñoetarik andiena.

R: Paternosterra, beste guztien burua legez.

P: Zegaiti da Paternosterra beste guztien erreglea, eta ordea.

R: Zerren Kristok egin eban, eta beragan daukan, eskatu bear dan guztia.

P: Zeinzuk dira oraziño oneen kondiziñoak.

R: Piedadea, amudioa, konfianzea, humilda-
dea, eta perseberenzia.

P: Eta oneetarean, ezer eztaukala deretxan-
nak, zer egingo dau.

R: Prokuradu, eta alegina egin.

P: Esazu egingo deustegu oraziño angeruai,
eta beste santuai.

R: Bai iauna geure bitartekoai, eta erreguta-
lai legez.

P: Ze gauza dira Angeruak.

R: Espiritu zeruko bazuk dagozanak beti laun-
goiko omnipotenteen alabanzaan.

P: Ze serbizio geiago egiten deusee aeu
majestadeari.

R: Gizonak gorde; ekarri, eta eroan laungoi-
koari bere mandatuak (Irakasi bide ze deboziño
eta erreberenzia edugi bear dan Angeru guoar-
dakoari)

P: Ze oraziño esatee deusazu Ama Birjina
santisimeari?

R: Abe Maria, eta Salbe Rejinea.

KAP. VII

Abe Maria, eta salbeen ganean

P: Esan egizu Abe Maria.

R: Abe Maria, &c.

P: Nok egin eban Abe Maria?

R: Leelengo partea artu zan Augeru san Gra-bielen salutazinorean, eta santa Isabeleganik, eta bigarren partea ama elexa santeak erauzi eusan.

P: Esan egizu Salbea.

R: Salbe rejina, &c.

P: Salbea noganik ikasi zenduan?

R: Elexeen usanzarean.

P: Oraziño oneek esaten dazuzanean nogaz berba.

R: Maria Birjina Santisimeagaz.

P: Nor da Maria Birjina Santisimea.

R: Da andra andi bat, birtutez eta graziaz betea, eta laungoiko egiazkoen amea.

P: Nun dago andra andi ori.

R: Zeruan gorpuz da arima.

P: Eta elexaetan dagoana, zer da.

R: Aen imajinea.

P: Zetarako dago elexeetan.

R: Komuteerazaiteko, zeruan bizirik dagoana.

P: Ze reberenzia, eta deboziño edugiko deustegu elexako imajinai.

R: Santuai eurai, zeinzuen imajinaak direan, emongo gendusteena.

P: Eta santuen Relikiai ze reberenzia zor deustegu.

R: Santuai eurai zor deusteguna, izan zirealako laungoikoen tenplu biziak.

P: Ze oraziño esaten deustezu santuai.

R: Ledaniak, oraziñoak, Pater nosterra, da Abe Maria.

P: Bada zelan; eztozu Paternosterrean, eta Abe Marian laungoikoagaz, eta bere ameagaz berba egiten?

R: Bai, baea laungoikoari eskeetan natxae, santu oneen merezimentuakgati, eta eurai izan dakidazan aen majestaden aurrean erregutala.

KAP. VIÑ

Mandamentuen ganean

P: Esan egizuz Mandamentuak.

R: laungoikoen Mandamentuak dira amar.

&c.

P: Leelengo Mandamenduen ganean esan egidazu; nogiño obligeetan gaituz laungoikoen amudioak.

R: Adoreetan bera bakarrik laungoiko egiazkoa legez, fedeagaz, esperanzeagaz, eta karidadeagaz.

P: Zelan adoraduko da.

R: Gorpuzeko, eta arimako reberenziagaz.

P: laungoikoa izanik espiritu puru bat ez zan asko arimeen reberenzia.

R: Ez iauna zerren aen majestadeaganik gorpuza bere izan genduan.

P: Zer da laungoikoa gauza gustien ganean amaetea.

R: Borondatea edugitea leenago onek guztiok galzaiteko ze ez aen majestadea ofendietako.

P: Nok pekatu egiten dau fedeen kontra.

R: Sinisetan dabenak fedeen konlrako gau-
zeetan, supestiziñoetan eta eztakianak, uketan
dabenak eta dudan dagoana bear dituzan gau-
zeetan.

P: Nok esperanzen kontra pekatu egiten
dau.

R: Konfianzea galduten dauenak laungoikoen
miserikordiena, edo zoratusa legez persumietan
dabenak, edo ustea daukanak.

P: Nok karidaden kontra pekatu egiten dau.

R: Eskerrik estaukanak aen majestadeen
benefizio, eta obra onai, borondateari, eta aen
majestaden desobediente danak.

Bigarren mandamentuen ganean

P: Nok juramentu alperrik egiten dau.

R: Egia бага, justizia бага, eta nezesidade
baga iuramentu egiten dabenak.

P: Egia бага iuramentu egiten dauenak, ze
pekatu egiten dau.

R: Mortala, badaki iuramentu egiten dabela,
eta dala guzurragaz.

P: Dudeagaz iuramentu egiten dauenak
pekatu mortala egiten dau?

R: Bai iauna zerren perikuluan jarten da guzurragaz egiteko.

P: Nok iustizia baga iuramentu egiten dau.

R: Gauza donga bat egingo dabela, iuramentu egiten dauenak.

P: Iuramentu au egiten dauenak ze pekatu egiten dau.

R: Gitxi, edo geiago pekatu grabea, segun zeen ganean dan iuramentua.

P: Zegati ofendietan da.

R: Iaungoikoa ainbat, modu bi oneetako iuramentuakaz.

R: Zerren da reberenzia gitxi, eta malmadade andia, erabiltea aen majestadea testiguzat gauza falso, eta deungaro egineen ganean.

P: Bada iuramentu egin dabenak gauza deunga bat egiteko, zer egin bear dau.

R: Garbaia edugi, egin dabelako, eta ez kunplidu.

P: Nezesidade baga iuramentu egiten dauenak ze pekatu egiten dau.

R: Gitxienagaz benialmente edugi dauen reberenzia gitxigati.

P: Eta pekatu da, laungoikoen kriaturaakgaiti iuramentu egitea.

R: Bai iauna, zerren oneetan egin zituzan iauna iuramentu egiten dau.

P: Zelan bada esango dogu, ez pekatu egiteko.

R: Ez, edo bai, Kristok erakusten deuskuna legez.

P: Botoen ganean esan egidazu, nox da pekatu ez kunplietea edo azereetea.

R: Eztagoanean errazoarik atarako, letraden, eta iakituneen eretxian.

Irugarren mandamentua

P: Irugarren mandamentuen ganean, esazu nok iaiak santifikadu, eta goardeetan dituz.

R: Enzuten dauenak oneetan meza osoa, bearririk egiten eztauenak, eta gastaetan dituzanak obra onetan.

P: Pekatatu da bearra gauza gitxitan edo bear direanetan egina.

R: Ez iauna baea dudan dagoanak dauko obligaziño itaunetako geiago dakianari.

P: Nok bestek pekatu egiten dau mandamentu onen kontra.

R: Elexa santeari, edo aen Deskomunioari respetoa galduten deusanak.

Laugarren mandamentua

P: Laugarren mandamentuen ganean esazu; nogaiti esanten dogu, onrraetan dituzala bere gurasoak.

R: Sokorrietan dituzanak obedezieta deustena, eta respetoa edugiten deustena.

P: Besterik entendietan dira gurasozat naturaleen ostean.

R: Edadean, iakitean, eta gobernuan nagusi direanak.

P: Guraso naturaalak zer zor deusee humeai.

R: Sustentadu, dotrinea emon, eta eztatua, ez eureen borondateagaz kontra.

P: Ezkonduak emasteakaz zelan igaro bear dabe?

R: Amudioagaz, eta respetoagaz Kristok bere elexeagaz legez.

P: Emazteak senarrakaz zelan?

R: Amudioagaz eta respetoagaz, elexea Kristogaz legez.

P: Ugazabaak kriaduakaz?

R: laungoikoen umeakaz legez.

P: Eta kriaduak ugazabaakaz?

R: Aetan laungoikoa serbietan danena legez.

Bostgarren mandamentua

P: Bostgarren mandamentuen ganean esazu; zer bedekeetan da ilteaz ostean.

R: Ez iñori gatx egitea berbeagaz, obreagaz, ez deseagaz.

P: Nok oneen kontra pekatu egiten dau.

R: Zemaia, edo agrabioa egiten dabenak, edo zordunari parkaetan estabenak.

P: Oneez ostean dago beste ilteko modurik.

R: Bai iauna eskandalizaduagaz, edo peliburu andian dagoanari ez lagunduagaz.

Seigarren mandamentua

P: Seigarren Mandamentuen ganean; esazu, nok ondo goardeetan dau.

R: Kastu, eta garbi danak berbaetan, obreetan, eta pensamentuetan.

P: Pekaturik egiten dau pensamentu deungan, prokuretan dabenak, beragainik beralan urtigi.

R: Antes merezidu dau bera apartadu badidi okasiñoetarean.

P: Bada nok pensamentu deungetan pekatu egiten dau.

R: Intenziñoa artuten dabenak, eta dagoana bere guraz deleiteetan.

P: Ezkonduai zer aginetan iatee, matrimonio-ko obligaziñoan.

R: Faltadu ze dagiela zor dabeen dezenziari, edo onreari, eta alkarri emon eusen berbeari.

P: Zein gauza lagunduko iaku kastidadea goardeetako.

R: Oraziñoak, Sakrementuak, alperrik ez ego-teak eta lagun onakaz eбилteak.

P: Zek onetarako dañu egiten deusku.

R: Larregian edanak, ekusteak, eta konbersaziño okasiñodunak.

Zazpigarren mandamenduen ganean

P: Zazpiarren Mandamentuen ganean esazu; nok kunplietan dau mandamentu onegaz.

R: Artuten eztabenak, eztaukanak, eta gura estauenak laguneena bere iabeen borondatea baga.

P: Nok ausiten dau mandamentu au.

R: Beste bateri egiten deusanak dañuren bat, edo okasiñoa emaiten dabenak bestek degion.

P: Eta onstu eban, edo gatx egin ebanak asko dau konfesetea bere pekatua.

R: Ez iauna, bear dau pagadu zor dabena; edo gitxienaz al dagian partea.

P: Eta egin ezin dabenak zer egingo dau.

R: Prokuradu bere partez al dagiana.

Zorzigarren mandamentua

P: Zorzigarren mandamentuen ganean esasu, nok kunplietan dau mandamentu onegaz.

R: luzgeetan eztauenak laguneen gatxik, ondo iakin baga, esaten eztituzanak, eta euzuten eztituzanak, ezpada intenzino onagaz.

R: Nok ausiten dau.

P: Onrea kenduten dabenak iustiziaz kontra, gauza iñok eztakiana agertuten dabenak, edo guzurra esaten dabenak.

P: Guzurra esan al baleite gauzaren baten intenziño onagaz inok bere, pekatu bagarik.

R: Ezbeinbere, baea bai exilik edugi, egia estalduagaz.

Bederazi, eta amargarren mandamentua

P: Zer bedeekeetan da bederazigarren, eta amargarren mandamentuan.

R: Kodizia, eta deseo aragienak, eta azien-deenak.

P: Pekatua da bestek baño geiago edugiten deseazea modu onean.

R: Ez, zerren solo bedeekeetan dira kodizia, eta deseo iustizien kontrakoak, edo modu gesto-koak.

P: Zegaiti bedeketan dira, mandamentu partikularragaz, kodiziak honestidaden kontrakoak, eta aziendenak.

R: Zerren direan geiago estuten gaituzanak, eta pelliburu geiagotan ifinten gaituezanak.

KAP. IX

Beste mandamentuen ganean

P: Zeinzuk dira lege naturalak erakusten deuskuzan mandamentuak.

R: Gura izaitea neure proximo, eta lagunendako, neuretako gura dodana, eta ez opaetea gura eztodana.

P: Dago beste mandamenturik, esan doguzaneen ganean, iakin bear doguanik.

R: Bai, ofizioetakoak, eta beste biziza modutakoak.

P: Eta oneek nok dauko obligaziño iakiteko.

R: Bakotxak bere ofizioagaz batera.

P: Eta eskusadu ezin leite iakin ezagaiti.

R: Ez bere ofizioko gauzo komunetan.

P: Zein gauza zuk lagunetan iakuz mandamentu oneek gordeetako.

R: Oraziñoak, sakramentuak sarri artuak, sermoak sarri enzunak, irakurriak liburu santuak, eta lagun oneen artean ibilteak.

P: Ze gauzak dañu egiten deusku.

R: Kostunbre, eta okasiño deungaak, deboziño gitxiak, eta konfianza larregiak.

KAP. X

Elexa santaen mandamentuen ganean

P: Esazuz Elexa santaen mandamentuak.

R: Elexa santaen mandamentu santuak, &c.

P: Zetarako dira Elexeen mandamentu santu oneek.

R: Obato erakusteko, eta adietan emaitako laungoikoenak.

P: Zer da Elexea.

R: Kristiñau gustiak bat izaitea, Kristok, eta aen Bikarioak Aita santu Eromakoak goberneetan dabeena.

P: Nor da Aita santua.

R: Eromako Pontifizea, zeini zor deusagun obediencia osoa.

Leelengo mandamentuen ganean

P: Esan egizu zer da Mezea.

R: Da Kristogaz egiten dan ofrenda bat, aen bizizeen, eta eriozeen semejanza bat.

P: Nori egiten iako sakrifizio, eta ofrenda hau.

R: Aita eternoari.

P: Zetarako.

R: Iru gauzatarako: graziaak emaiteko; satisfazietako, eta ondasuneen eskeetako.

P: Nori balio deuse meza ak.

R: Biziai, da Purgatorioan dagozan arimaai.

P: Eta orreetarean norzuei geiago.

R: Ateretan dituezanai, esaten, da enzuten dituezanai, eta ofrezietan dituezanai.

P: Nok kunplietan dau meza oso enzuteko aginduagaz.

R: Meza osoan dagoanak bere gogoagaz eta borondateagaz.

P: Nok meza osoa enzuteko obligaziñorik eztauko.

R: Premia egiazkoagaz dagoana inpedidurik.

Bigarren, eta irugarren mandamentuen ganean

P: Zegaiti esaten dozu konfesetea, edo komulgetea, edoalabere urtean bein.

R: Eztagoalako geiago agindurik.

P: Eta konsejuz?

R: Zeinbatetan akonsejeetan gaituzan konfessore prudente ondo informadurik dagoanak.

Laugarren mandamentuen ganean

P: Barauen ganeko aginduak zetan obligazen gaitu?

R: Ez iaateko iaaki bedekaturik, eta egunean bein baxen ian eztila.

P: Ze ordutan ian bear da.

R: Eguerdirean aurrera, edo gitxi bat leenago.

P: Barau dan egunean bedekazen baiaku edatea.

R: Ez iauna, nai eguerdia baño leenago, edo geroago.

P: Zeinbat bear lizate gabeko kolaziñoa.

R: Ainbat zeinda useetan dan konozenzia oneko personaen artean.

P: Barau egiteko obligaziñorean zein persona dago libre.

R: Ogeta bat urte kunplidu ez laukeenak.

P: Eta zein besterik.

R: Komodamente barau ezin leitezanak, zarrak, eta gexoak, eta bear egin bear dabee-nak.

P: Zer egingo dau obligaziñorik eztauenak barau izaiteko, zerren eztaukan edaderik.

R: Artu baraua, da ikasi edadea daukaneko.

Bostgarren mandamentuen ganean

P: Ze frutu zor deusagu amarrenari, eta pre-miziari, eta zeinbat.

R: Konstunbre Obispaduan edo errian rezibiturik dagoanagaz konforme.

P: Zor deusagu amarrenari oneena.

R: Artudin moduan, ona, edo adinona, edo ez deungeena, zerren emaiten deusku laungoikoak guztia.

KAP. XI

Sakramentuen ganean

P: Esazuz ama elexa santaen sakramentuak.

R: Ama Elexa Santearen sakramentuak, &c.

P: Nok egin zituzan sakramentuak.

R: Kristo berak.

P: Ze gauza dira sakramentuak.

R: Medezina espiritual bazuk osaetan, eta iustifikeetan gaituezanak.

P: Nolan iustifikazen gaituez.

R: Emaiten deuskuela barruan arimako grazia, señaletatik.

P: Nolan emon al leige grazia atetikotatik.

R: Aetan emaiten iakuzan Kristoen merezi-mentuak.

P: Eta nezesidade da errezibitzea dispoziziño onagaz sakramentuak.

R: Bai, zerren ezpabere ezta errezibietan grazia.

Baptismuen ganean

P: Ze gauza da Baptismua.

R: Iaio eta espiritual bat, emaiten iakula graziazko izaitea, eta kristiñauaren señaletatik.

P: Zetan lagunetan iaku baptismua kristiñauaren bizizarako.

R: Premia ditugun birtuteak.

P: Ze pekatu kenduten dau.

R: Pekatu originala, eta beste edozeinbere, idaraiten dana.

Konfirmaziñoen ganean

P: Zer da konfirmaziñoa.

R: Aumentu espirituala biziza, eta izaite baupismoak emon euskuneena.

P: Ze modutan emoten deusku aumentu ori.

R: Emaiten deuskula grazia, eta indarra, zegaz konfeseetan dogun fede kristiñauena.

Penitenzien ganean

P: Zer da penitenzia.

R: Medezina espiritual bat, bateatu ezkeror egiten direan pekatuena.

P: Ze ondasun emaiten deusku.

R: Grazia, zeinekin parkaetan iakuzan kulpa igaroak, eta goardetan gaituzan etorkizunetarean.

P: Zeinbat parte ditu.

R: Kontriziñoa, konfesiñoa, eta satisfaziñoa.

P: Zer da kontriziñoa.

R: Damu bat, damu guztien ganekoa laungoikoa ofendidu dogulako, konfeseetako, eta emendeetako proposituagaz.

P: Ondo da infernuko bildurra edugitea.

R: Ondo, prinzipalmente leelengorean.

P: Pekatuak konfeseetan aginzen deuskun mandamentuak, zelan obligetan gaituz.

R: Leenago memoriara ekarte eta guztiak esatea pekatu mortalik exilik dakigula etxi baga.

P: Eta kunplietan dogu esanagaz edozeinbere saserdoteri?

R: Ez iauna, ezpadauko bear dauen jurisdiziñoa absolbietako.

P: Ze gauza da satisfaziñoa.

R: Pagaatea penitenziako obraakaz geuk zor dogun kulpaen penea.

P: Esazu bada Kristoren penaak ez zirean asko.

R: Bai, baea gura dau geuk bere satifazidu daigun beragaz.

P: Zeinzuk dira obraak satisfazietakoak.

R: Oraziñoa, limosnea; da baraua.

Komunioen ganean

P: Zer da komuniñoa.

R: laateko espiritual bat sustenteetan dabena arimea, eta emaiten deusana sekulako bizizea.

P: Zer emaiten deuske laungoikoen iateko onetan.

R: Kristo bera, laungoiko, eta gizona dana legez.

P: Nolan, señaLEAN, ala figuraan bakarrik?

R: Ez iauna ezpada bere sustanzian, eta bera dana legez.

P: Beraz eztago sakramentuan ogien, eta ardaoen sustanziarik.

R: Ez azidenteak eurak bexen.

P: Bada ogien, eta ardaoen sustanziagaz zer egin zan.

R: Biortu zan Kristoen gorpuz, eta odol.

P: Ze poderegaz egiten da hau.

R: Saserdoteai emon iatenagaz.

P: Sekularak, saserdote estireanak zegati komulgeetan dira ogien espezien bean bakarrik.

R: Zerren espezi onetan bakarrik eta edozein-bere partetan dagoan Kristo guztia.

P: Sakramentu santu au artoteko, ze disposiziñogaz bear dogu etorri.

R: Baraurik, edozeinbere pekatu mortal akordeetan iakuna konfesadurik.

P: Sakramentu au artu baño leen zer pentsatu bear dogu.

R: Nor datorren sakramentu santu onetan, nogaña datorren, zelan, eta zetarako.

P: Zetarako ordenadu eban laungoikoak ain sakramentu altua.

R: Gu onreetako, aberastuteko, eta obligeeetako.

P: Sakramentu santu au artuezkero zer bear dogu egin.

R: laungoikoaro graziak astiro emon, eta geu ofrezidu, aen majestadea serbietako, obligadurik gagozana legez.

Oleaziño santuen ganean

P: Zer da oleaziñoa.

R: Da azerengo arimeen sendeeta espiritual bat.

P: Ze ondasun emaiten deusku.

R: Garbieteaz anz guztiak pekatuenak inorantziaz, edo nagitasunez geratu oi iakuzunak.

P: Zegaiti etxiten da ain azereengo ordurako.

R: Ondo iarri gaitezan azereengo ordurako.

Ordeaen, eta matrimonioen ganean

P: Zer egiten dau ordeako sakramentuak.

R: Emaiten deuste grazia ordenaduai euren ofizioa ondo egiteko.

P: Matrimonioko sakramentuak zer emaiten dau.

R: Emaiten deustee grazia ezkonduai, agaz ondo bizi izaiteko.

KAP. XII

Induljenzien ganean

P: Sakramentuez ostean ze beste gauza daukagu lagunetako elexan.

R: Sakramentalak esaten iatezanak: Induljenziak, iubilioak, ur bedeinkatua.

P: Ze gauza dira induljenziak.

R: Pekatuagati zor dogun peneen parkazyiñoa.

P: Noen birtutez emaiten iakuz.

R: Kristoen, merezimentuetarean, eta santuenetarean.

P: Nolan irabaziko dira induljenziak.

R: Egiten dogula aginetan dana osoro, eta estatu graziazkoan gagozala.

KAP. XIÑ

Obra miserikordiazkoen ganean

P: Esaegizuz obra miserikordiazkoak.

R: Obra miserikordiazkoak &c.

P: Zegaiti deiegin deustezu miserikordiazkoak.

R: Zerren eztirean iustiziaz zor.

P: Nox obligetan dabee pekatuen bean.

R: Nezesidade andietan, sabioak erakusten deukuena legez.

P: Zeinzuk dira merezimentu geiago dabee-nak.

R: Espiritualak, emaiten dabeelako ondasun andiagoak.

P: Eta korporalen premia andiagoa danean.

P: Premiak berak egiten dituz orduan obligaziño geiagotako.

KAP. XIV

Arimeen arerioen ganean

P: Esazuz arimeen arerioak.

R: Arimearen arerioak &c.

P: Zegaiti esaten deustezu onei arimeen arerioak, benturan pekatu eragin al baleie.

R: Ez, baea bai pekatu egin gurea emon.

P: Bada zegaitik permitietan dituz laungoikoak tentaziñoak.

R: Bearra egin daigun benzietarren, da bitoria alkanzeetarren.

P: Demonioak zelan tenteetan gaituz.

R: Ifinten deuskuzala barruti pensamentu gestoak, eta ateti enkuntru gestoak.

P: Pensamentu gestoenzat, ze remedio.

R: Lagun onak, kuruzea, eta ur bedeinkatua.

P: Okasiño gestoek kontra ze eremedio da.

R: Erremediorik oneena da inex egitea.

P: Eta au ezin dinean.

R: Leenago oraziñoagaz konsejuagaz, eta ondo begiratuagaz ondo iarri.

P: Munduak zelan tentazen gaituz.

R: Ekarten deuskuzala munduko esanak, eta obra gestoak.

P: Eta ze eremedio dago onetarako.

R: laungoikoen legea, eta santuen bizizea.

P: Aragiak zelan tentazen gaituz.

R: Inklinaziño, eta pasiño gestoakaz.

P: Ze gauza dira pasiñoak.

R: Kolera, eta aserre sobradua entendimientua galerazaiten deskuenak.

P: Zeinzuk dira.

R: Leelengoenak, eta andienak dira lau, konteutua eta bildurra, esperanzea, eta dolorea.

P: Ze remedio izan al leite pasiño oneen kontra.

R: laungoikoen grazia, eta birtuteak.

KAP. XV

Pekatu eta birtuteen ganean

P: Esazuz pekatu mortalak.

R: Pekatu mortalak dira, &c.

P: Zeinbat pekatu modu dira.

R: Iru, orijinala, beniala, ta mortala.

P: Zer da pekatu orijinala.

R: Pekatua, zeinegaz iaioten garean, dakargula herenziaz leelengo gurasoetarean zeinzuk izan zirean Adan, eta Eba.

P: Zer da pekatu mortala.

R: Pensamentuti igaraitea, esatea, egitea laungoikoen kontrako gauzea.

P: Ze kalte egiten dau ariman pekatu mortalak.

R: Kendu karidadea eta laungoikoa, zeinda da aen bizizea, grazia, eta gloria, eta kondenadu sekulako infernura.

P: Zein da pekatuen erremedioa.

R: Penitenzia egiazkoa esan zana legez sakramentu penitenziakoan.

P: Zer da peeeatu beniala.

R: Arimea ilten eztabena, baea gexotuten dabena.

P: Zelan gexotuten dau.

R: Zerren ozituten dau, eta ifinten dan prest pekatu mortaletako.

P: Zegaiti deretxo pekatu beniala.

R: Erraz egiten dalako, eta parkatzen dalako.

P: Zeinbat gauzagaiti parkazen da.

R: Bederazigaiti leen esan direanagaiti.

P: Zazpi pekatuai zegaiti dei egiten iate beste guztien buruak, eta prinzipioak.

R: Zerre direan beste pekatu askoen buruak, eta prinzipioak.

P: Soberbiako, eta abariziako pekatu guztiak dira mortalak.

R: Ez guztiak, ezpada direanak laungoikoen, eta proximoen karidaden kontra.

P: Eta karidadeen kontra nos dira.

R: Ausiten danean laungoikoen, edo elexa santeen mandamenturen bat.

P: Zer da soberbia.

R: Besteak baño geiago izaite gura bat.

P: Zer da humildadea.

R: Borondate, eta inklinaziño bat zegaz daukan bere burua besteena baño gitxiagozat.

P: Zer da abarizia.

R: Hazienden deseo errazoa bakoa.

P: Zer da liberal izaitea.

R: Inklinaziñoa edugitea emaiteko bear dan moduan, eta bear dan denporan.

P: Zer da luxuria.

R: Appetitu eta deseo torpe bat aragien pekatuturako.

P: Zer da kastidadea.

R: Aragien garbitasunen deseo bat.

P: Zer da irea.

R: Borondate ordena bako bat benganzea egiteko.

P: Eta mansadunbrea zer da.

R: Bengaien deseorik ez eutea.

P: Zer da pazienza.

R: Moduagaz trabajuetan tristezea edugitea.

P: Zer da gulea.

R: Deseo ordea bako bat iaateko, eta edateko.

P: Eta tenplanzea, zer da.

R: Apetitu oneri frenu bat ifintea.

P: Zer da inbidia.

R: Tristeza bat daukaguna besteen ondasunagati.

P: Eta zer da proximoen karidadea.

R: Sentietea bakotxak laguneen gatxa, eta ondasuna berea legez.

P: Zer da nagitasuna.

R: Trise, eta oz ibiltea laungoikoen gauzeetan.

P: Eta zer da dilijenzia.

R: Prest, eta gozoso egote bat laungoikoen gauzeetan.

KAP. XVI

Birtute teologaleen, eta kardinaleen ganean

P: Esazuz birtuteak.

R: Birtuteak dira zazpi, &c.

Birtute teologalen ganean

P: Zer esan gura dau birtute teologalak.

R: laungoikoenak.

P: Zegati daukee ain izen altua.

R: Zerren laungoikoagaz bat egiten gaituezan, eta berak emaiten dituzan.

P: Zer da fedea.

R: Argi bat, eta ezaute bat, gure naturalezeak alkanzadu ezin leiana, sinisetako, ikusi bagarik, laungoikoak esaten deuskuna, eta Elexa santeak erakusten deuskuna.

P: Bakusu laungoikoa dala iru persona, ta laungoiko bat, edo Kristo laungoiko, eta gizona dala?

R: Ez baea sinisetan dot banekus baño geia-go.

P: Zeigaiti sinisetan dozu ain ziertu.

R: Zegaiti eze laungoikoak diñoan, eta elexa santeak erakusten daben.

P: Zer da esperanza.

R: Gloriako esperanza edugitea, eta aen alkanzetako remedioena.

P: Zetan dago gure bienabenturanza.

R: Ekustean laungoikoa beragan, amaetean, eta gozaetean aen majestadea sekula beti fin bagarik.

P: Ze modugaz alkanzatan da.

R: laungoikoen graziagaz, eta Kristo gure launen merezimentuakaz, eta gure obra onakaz.

P: Zer da karidadea.

R: laungoikoa amaetea gauza guziez ganean, eta proximoa geure burua legez.

Birtute kardinaleen ganean

P: Zegaiti esaten iate kardinalak birtute onei.

R: Zegaiti eze dira prinzipaleenak, eta beste birtuteen sustraiak, zeinetarik eta ernetan direan.

P: Ze ofizio dauko prudenziak.

R: Extremu bien artean modua edugitea.

P: Ze ofizio dauko iustiziak.

R: Bakotxari emaitea zor jakana.

P: Ze ofizio dauko fortalezak.

R: Modua ifini atrebimentuai, eta bildurrai.

P: Tenplanzeak ze ofizio dauko.

R: Etxi ian edan sobreari, eta aragien delei-teari.

P: Birtuteetarean zein da andiena.

R: Karidadea, emaiten deustelako bizizea beste birtute guztiai, eta artez daroazalako.

P: Norako bidea emaiten deustee.

R: laungoikoaganako, eta agaz guztiok bat egiteko.

P: Zein gizonetarean da laungoikoen aurrean obago, eta santuago.

R: Daukana karidade geien dana dala.

P: Nok dauko karidade andiena.

R: Mandamentuak obato gordeetan dizanak.

P: Ebanjelioko konsejuak zeinbat dira.

R: Iru, borondatezko probezea, kastidadea goardetan dabela bizi izaitea, eta besteen borondateen azpian egotea.

P: Ze serbizioko dira konseju oneek.

R: Guardaetako oneekaz mandamentuak obato.

KAP. XVII

Arimeen potenzien ganean

P: Esazuz Arimeen potenziak.

R: Arimeen potenziak, &c.

P: Zegaiti laungoikoak emon euskun entendi-mentua.

R: Ezau daigun, eta aen majestadeen gauzeetan pensamentua, eta gogoia edugi daigun.

P: Eta zergaiti memoria.

R: Akordadu gaitezana aen majestadeen legeaz eta mesedeakaz.

P: Zegaiti borondate, eta albedrio librea.

R: Amadu daigun, eta egin daigun merezietan dogula aen majestadeen borondatea.

KAP. XVIÑ

Sentidu korporalen ganean

P: Esazuz Sentidu korporalak.

R: Sentido korporalak, &c.

P: Zergaiti laungoikoak emon euskuzan gorpuzeko sentiduak? eta beste gorpuzeko parteak.

R: Oneekaz serbidu daigun gauza gustietan.

KAP. XIX

Espiritu santu launeen donen ganean

P: Esazuz espiritu santuen doneak.

R: Espiritu santuen doneak, &c.

P: Zetako bear dira espiritu santuen doneak.

R: Egin gagiezan obediente aen majestadeak emaiten deuskun pensamentuetarako, eta inpiraziñoetarako.

P: Entendimentuen donea zetarako aprobe-txetan iaku.

R: Egiak bierretan emaiteko.

P: Eta sabiduriako donea?

R: Oneekaz ondo iusgaetako.

P: Eta konsejuko donea?

R: Konsejua artuteko laungoikoa geien serbietau dan gauzeen ganean.

P: Zienziako donea?

R: Emon iakau konsejurik oneena arzaiteko.

P: Piedadeko donea.

R: Konzerteetan dau arimea laungoikoagaz.

P: Bildurreena eta fortalezeena?

R: Konzerteetan dabee arimea ondo eurakaz.

P: Bada au guztian, ezta birtuteen ofizioa.

R: Birtuteak ekarten gaituez errazoara, eta laungoikoen legera, eta barriz doneak espiritu santuen mobimentura.

KAP. XX

Espiritu santuen frutuen ganean

P: Esazuz espirituen frutuak.

R: Espiritu santuen frutuak, &c.

P: Zer dira espiritu santaen frutuak.

R: Nolan direan eskurrean frutuak gozoenak eta preziaduenak, alan dira gugan espiritu santuen frutuak.

KAP. XXI

Bienabenturanzeen ganean

P: Esazuz bienabenturanzaak.

R: Bienabenturanzaak dira, &c.

P: Zer dira bienabenturanza oneek.

R: Birtuteen da Espirituen donen obrarik oneenak.

P: Norzuk dira borondatezko pobreak.

R: Onrarik, eta aberastasunik ez ezer aetarik gura eztabeenak.

P: Norzuk dira mansoak.

R: Irarik, edo kolerarik eztaukeenak, eta atarako eztagozanak.

P: Zelan dira lurreko iaun.

R: Zerren direan eureen iaba.

P: Norzuk dira negar egiten dabeenak.

R: Etxiten dituezanak kontentuak gauza txee-tan bada bere.

P: Norzuk dira daukenak gosea, eta egarria iustiziena.

- R:** Egiten dabeenak zor dabeena ardura, eta ansia guztiagaz.
- P:** Norzuk dira miserikordiosoak.
- R:** Piedade andia daukeenak azeakaz bere.
- P:** Norzuk dira bioz garbia daukenak.
- R:** Barruko pasño guztiak ilik daukezanak.
- P:** Norzuk dira bakesoak.
- R:** Bakea ifinten dabeenak eureen persone-tan.
- P:** Norzuk trabajuak igaraiten dituez justizia-gaiti.
- R:** Onetan dagozanak firme persegiduarren bere.
- P:** Zegaiti obra oriei dei egiten iatee biena-benturanzaak.
- R:** Zerren oneetan dago mundu onetako bizi-zeen bienabenturanzea, eta besterako esperan-zea.
- M:** laungoikoak bada (ene semea) eroan gagi-zala ara guztiok.
- R:** *Amen Amen.*

FIN.

**KONFESIONARIO JENERALA,
eta modua,
examineetako konzienzia
pekatu guztietarik,
biziza guztikoak badira bere,
probetxu andikoa,
alan eklesiastikoendako,
zein da sekularendako,
eta kontriziñoa**

Konfeseetan doean edozeinbere personak, dauko obligaziñoa, igaraitea bere gogoti, ze obra egiten doean; zerren da egitea laungoikoen adiskide konfesiñoagaz, aen majestadeen arerio zana pekatuakgati; zeinetan doean, edo sekulako gloria alkanzeetea, edo sekulako penea infernuetan, eta alan ain ardura andiko negozio baten, bear dau begiratu leenago, zelan doean konfesoreen belaunetara.

Konfeseetan doazaneen bazuk dauke zer geiago begiratu, beste bazuk baño, konfesiñoan, kristiñau eriozea euren memoriati igaraiten etxakena legez, oxala ezpaliz urte askotakoa,

zerren benturaz egin dituez konfesiñoak, ezer balio ez ebeenak, benturaz pekatu mortal bat, edo asko memorian eukezala, ez zituezan konfesadu maliziaz, edo loseagaz, edo egon zalako urte askotan pekatu mortaleko bizizan arean urten gura ez ebal, konfeseetan, eta komulgeetan zala konzienzia deungeagaz.

Persona alako guztiak bear dituez ostera konfesadu, pekatu konfesadu dituezan guztiak area-nik ona; zerren konfesiño egin zituezan guztiak, ezer balio ez ebeen; konfesiño baxotxean pekatu mortala egiten ebeela, eta alan bear dituez ekarri denporeagaz, eta ardureagaz euren pekatuak memoriara.

Bestereen bazuk dira, eureen pekatuak konfesadu ezker, deritxeen denporaren baten, gura dabeenak konfesadu oster, eureen konzienzien seguridade andiagoagati; oster aekgati negar, eta penitencia bigarrenaz egiten dabeela, zein dan gauza ona, eta laungoikoen aurrean daukana merezimentu andia.

Baea oneek eztauke obligaziñorik, memoria-ra pekatuak ekarteko, ain ardura andiagaz,

zerren konfesadu daiez pekatu, pena geiago emaiten deusteenak, eta etxi gura dituezanak.

Bada, egiteko ondo examinau, eta ekarteko ondo memoriara, bear luke konfesaduko dan baño leenago, leku bakar baten jasarri, laungoi-kuari erreguetan deusala, grazia emon degiola, ekarreko memoriara numero, eta zirkunstanzia pekatuenak, eta gero argia entendimentura, aeen grabedadea ezauteko, eta dolorea, eta garbaia, zerren egin zituzan, eta aborrezirrentua aena.

Gero ekarri begi memoriara, zeinbat dan konfesadu zala, zeinbat ilabete, ala urtebete, eta gero mandamentu bakotxean ikusi begi, zeinbat pekalu lengo konfesinorean oraingino egin daben, ilean, edo asteen bein: gero numero guztiagaz ikusi, zeinbat bider dan, eta mandamentu bakotxean egon gitxi baten bere memoriati igaraiten dabela, mandamentuatan, zelan pekatu egin daben, eta zeinbat bider, barriz ezer akordeetan ezpaiako, urrengo mandamentura igaro bidi; barriz dilijenjian arduraz eginagaz, uste dot eze seguru egongo dala.

LEELENGO MANDAMENTUA DA IAUNGOIKO AMAETEA GAUZA GUZTIEZ GANEAN

Itaundu begio bakotxak bere biozari, kontu egiten dabela, dala fiskal akusetan daben bat bere burua, alan Mandamentu onetan zein besteetan.

1. Ea dudarik edugi dabenz fedeko misterioetan gogoagaz, borondateagaz, ea sinistu daben, edo egin daben ezer, edo pensamentuagaz, edo obragaz.

2. Ea sinistu, edo egin daben etxizeria, enkantamentu, edo sorgindasunik, daukala Demoniogaz konziertu agiririk, edo estaririk, eta sinistu dabeenz, edo amesen bazuetan, edo zori-zen bazuetan.

3. Iaungoikoen miserikordien, konfianzea galdu dabenz zerren uste eban, ezin alkanzadu leukeala bere pekatuen parkaziñoa.

4. Ea iaungoikoen kontra pazienza galdu dabenz, bere trabajuetan aborrezimentuagaz,

eta gaxeretziaz, errua ezarten deusala aen majestaden probidenciari.

5. Ea esan dabeen blasfemiako berbaren bat, eta iuramentu egiten dabeen aen izen santuagati, errenegadu daben laungoikuaz, edo santuakaz desesperetan dabela, edo iuramenturik egiten daben.

6. Ea laungoikoa ofendidu daben, leku sagraduan pekatu egiten dabela, edo profanadu daben, tratu, konbersaziño, eta obra deungaz.

BIGARREN MANDAMENTUA EZ ALPERRIK IURAMENTURIK EGITEA

1. Esan begi, zein iuramentu modu egin daren baxotxa dana legez.

2. Ea iuramentu egin daben, guzurragaz, edo dudan dagoala, ezakiala, ziertua, egia, ala guzurra dan, eta zeinbat direan, urtean, ilean, edo astean, gitxi gora beera, eta alan esango dau beste pekatu guztietan.

3. Ea iuramentu egin deben, pekatu mortala dan gauzaren bat egiteko, edo bengeetako bere burua, edo orduan intenziño eukenz kunplietako, zerren dira pekatu mortal bi.

4. Iuramentu egin daben alabaetan dala, zelan egin daben pekatu mortalen bat, naiz aragiagazkoa naiz dala benganzakoa.

5. Iuramentu egin badau iniurietan, agrabietan, edo infamaetan dabela bere proximoa.

6. Iuramentu falsoa egin badau justizien baraan, edo auzitan iñoen dañuan.

7. Iuramentu egin badau gauza ona egiteko, edo kunplietako intenziño бага, limosna emaitako, semeak kastigetako.

8. Ea iuramentu egin ezkerro, ez iokeetako, edo urlien etxean ez sartuteko, ausi badau iuramentu au; edo promesa, edo botoa laungoikoari egin ezkerro kunplidu eztabenz, edo ausi danenz.

9. Iuramentu egin dabenz laungoikoen izenagati, edo santuenagati guzurragaz, edo egiagaz, eta besteri eragin deusenz.

10. Iuramentu egiten dabenz beralan begiratu бага guzurra ala egia dan, ea kostunbre, ta usanzaan daukan.

11. Ea okasiñoa emon daben, beste bazuk deungaro iuramentu dagien, eurai eragiten deustela, edo egin gura debenai eragoziten ez deustela.

IRUGARREN MANDAMENDUA IAI EGUNAK GOARDEETEA, ELEXAKO BOST MANDAMENTUAKAZ

1. Itaundu begio bakotxak bere buruari zeinbat iai egunetan Meza enzun eztaben bere erruz, edo ilean, edo urtean, zeinbat direan kontu eginagaz.

2. Zeinbat bider enzun daben gogoia daukala beste lekutan, berbeetan, edo barrez dagoala.

3. Ea zeinbat bider jasarri dan peliburuan, ez enzuteko, zerren egon zan utra berandugiño bere erruz, zeinda izan zan suertea idaraiteko mezea.

4. Ea iñori okasiñoa emon deusan, ez enzuteko, zelandan kriaduai, edo adiskideai, azeratuten dituzala nezesidade andia бага.

5. Ea bearrik egin daben, edo okasiñoa emon daben, beste bazuk iaia ausi dagien.

6. Ea etxi daben konfeseetea garizumareen baten, edo errezibidu bear ebanean Elexako sakramenturen bat, edo exilik edugi daben konfesiñoetan pekatu mortalen bat.

7. Ea etxi daben kunplizaga konfesoreak emon deusan penitenziarik, edo obligadu daben restituziñorik egiten.

8. Ea ian daben aragirik on eztan egunetan, edo gaztaena, edo arrauzaak garizuman, buldarik eztaukala, intenziñoa eukala edugiteko bere.

9. Ea baraurik ausi daben, nezesidade andia бага, edo okasiño emon daben, bestek ausi dagian.

10. Ea amarrenak, eta premiziak pagazaga etxi dituzan.

LAUGARREN MANDAMENTUA GURASOAK ONRAETEA

1. Itandu begio bere buruari, ea ofensarik egin deusteenz gurasoai, giñarrabai, saserdote-

ri, edo elexakori, juezi, eta nagusiri, edo pensamentuagaz, deseetan deustela eriozea, edo gatx andiren bat, edo berba deungaakaz, edo obraz egiten deustela gatxen bat eta zeinbat bider.

2 Ea gurasoai obedezidu bagarik egon dan, gauza grabe, eta iustu danean, eta agindua egin ez arren etorri jaten dañurik etxean, honran, haziendan, eta osasunean.

3 Ea kuidadurik edugi daben, gurasuai akudieteaz, ikusirik nezesidadean dagozala al leizala sokorridu.

4. Ea ume daukazaneen irakasteko kuiadurik edugi daben oraziñoak, eta dotrinea; eta onetarako bear direan beste gauzaak; kenduten dituzala pekatu egiteko okasino gustietarik, agira egin, eta arteztuten dituzala beti gauza onera, eta egin dituzenz pekatuereen bazuk umeai exenplu deungea emaiten deusteela.

5. Ea galdu daben umeen, edo emazteen haziendea, edo iokotan, edo beste gauza deungatan.

6. Ea biziza gestoa emaiten deusan emazteari, edo ukatu deusan iaatekoa edo soñekoa bere personarako, da eserako bear dabena.

7. Ea emazteak obediencia galdu deusan senarrari, gauza grabe, eta iustu direanetan, esan deusan berba deungarik, deseetan deusala eriozea, edo emaiten deusala asekaba asko errazoa bada.

BOSGARREN MANDAMENTUA EZ IÑOR ILTEA

1. Ea proximoari agrabio, edo ofensarik egin deuseenz pensameutuagaz, deseetan deusala gatx andiren bat, laungoikoari eskeetan iakala, auen on degiola, eta alegreetan dala aen gatxagaz, eta damurik edugi daben aen ondasunagaz, zeinbat bider gitxi gora bera.

2. Iñori esan deusan afrenta andiko barbarik, presenzian, edo ausenzian kenduten deusala honrea, edo esan begi zelako berbaak esan deusazan.

3. Ea bere buruari biraorik ezarri deusan, edo beste personari, au alkanza dakion deseoagaz: edo bere umeak, edo laguneenak, edo beste

laungoikoen kriaturaak Demonioari ofrezietan dituzala.

4. Ea bere buruari eriozea deseadu deusan, edo beste personari, denpora andian daukala deseoa au, edo bazuetan, eta asegin artu daben ari eriozea, edo gatxa etorri iakalako.

5. Ea proximoari ofensarik, edo agrabiorik egin deusan obraakaz, burua ausiten deusala, edo beste kalte egiten deusala, eta begiratu begi ze dañu egin eusau berari, eta humeai, errestitu-ziño egin bear dabenetako.

6. Ea barriakaz, konsejuagaz, edo lagundua-gaz, okasiñorik emon daben, bazuk alkarregaz aserreetako, eta deungaro egoteko.

7. Ea kausa izan dan proximoen arimeen eriozeena, eskandalizeetan dabela, edo okasi-ñoa emaiten deusala, pekatu egiteko, erakusten deusala, animua emaiten deusala, eta konsejua, edo lagunetan jakazala, &c.

8. Ea laarregi jan, eta edanagaz, egin eusan bere osasunari dañu andirik juizioa galdu eban, edo galzaiteko peliburuan bere burua ifini eban, eta eskandalua, edo zer esan emon eban.

9. Ea eriozako peliburuan bere burua ifini daben, laungoikoa tenteetan dabela, kausa utra andia бага, eta nezesidade бага.

SEIGARREN, ETA BEDERAZIGARREN MANDAMENTUA EZTAGIGULA LUXURIAZKO PEKATURIK

Mandamentu onetako pekatuetan, bear dituz memoriara ekarri pensamentuak, berbaak, obraak, denporaak, okasiñoak, eta eztatua, eta itaune bakotxean esan begi bere eztatua, eta nogaz, pekatu egin eban berbeagaz, edo obrea-gaz.

1. Ea deseadu daben pekatu egitea askotan, edo zeinbat bider andraren bategaz, nai dala ezkondua, nai donzellea, librea, aidea, edo reli-jiosea, eta deseo deunga onegaz egon denz den-pora luzean, bategaz, edo askogaz pekatu egitea daukala gogoan, nogaz zierturik eztaukala pen-samentuan.

2. Ea egon denz askotan kontento artuten dabela, leen igaro dituzan pekatuakaz edo laguneenakaz, edo onestidade bakoakaz dagoala peliburuan konsentietako.

3. Ea aseginik artu dabeenz pekatu eginagaz, edo garbaitu iakeeenz, pekatua egiteez, osterabaleuko deseotan dabela, edo obratan ifintendabela.

4. Obratan ifini dituzan pekatuetan, ikusibegi, amanzebadurik egon zeenz, persona bategaz, edo askogaz, eta pekatu egin ebeenz, egunean, edo astean bein, eta beti egon zeenz deseo deunga onegaz, eta onetan desonrarik izan zan askok iakiela, eta eskandalua emaiten ebala.

5. Ea pekatu egin dabeenz andra libreakaz ilean zeinbat bider edo beste bategaz zeinbat bider, eta donzellaakaz, edo ezkonduakaz, edo boto kastidadekoa eginik daukeenakaz, obratan ifinten dabela.

6. Zeinbat bider egin deusteezan andrai laztanak, apaak, edo ukieta ezaiñakaz poluziñogaz, edo ainbaga.

7. Ea naturalezako legeen kontra egin dabeen edo beste gizonen bategaz, edo animalakaz; ala deseo edugi dabeenz, eta prokuradu, edo onetarako konseju emon dabenz.

8. Ea bere artean pekatu egin dabeenz ukietaz ezainakaz, poluziñoa daukala edo peliburu onegaz, edo andraen deseoagaz dagoala.

9. Ea amesetan edugi dabenz poluziñorik, berak onetarako okasiñoa emonik, oera ioeala edugirik deseoan, eta pensamentuan andraak, edo gura leukeala amesetan etorri balekioz alako gauzaak, eta etorriezkero asegin artu eban deseo deungeagaz, alan izan baliz gura leukeala.

10. Ekusi begi berbeetan, berba desonesturik egin daben andraakaz, beragana ekarteko deseoagaz, eta akonsejeetan dituzala pekatu egiteko karta deshonestuak bidaletan dituzala, edo berak artuten dituzala fin deungeagaz, edo paperagaz bidaldu daben bitartekorik, deungaro akonsejadu dagian.

11. Ea bere burua alabadu dabeenz egin eban pekatuagaz, edo besterik alabadu eban, edo mobiduetan, pekatu egiteko.

12. Ea kontentu artu dabeenz ekusteagaz gauza ezaiñak bere personaan, andraetan, gizonetan, edo animalietan, edo askotan oneen deseoa edugi dabeenz, eta onetarako okasiñoa emon dabeenz.

13. Ea okasiño emon dabeenz edozeinbere modutan dala, beste bazuk pekatu egin dagien, akonsejeetan dituzala, lagunetan iateela, edo bere etxean artuten dituzala, edo, eragozi ezpadeuste al legiala, eta obligaziño eukala, eta deklaradu zirkunstanziak, zemodutako personak pekatu egin eban.

14. Ea desonradu daben Donzellaren bat, ezkonzea aginduta, edo ain publiko izan zan zeinda daukan satisfazietako obligaziñoa.

15. Ea edugi dabeenz egiazat gizoneen bazuk eta andraren bazuk daukeela adiskidetasun deungea, begiakaz ikusi baga, edo fundamentu ziertu baga.

16. Ea garbaitu iakan boto kastidadekoa egina, edo ereljiokoa, ibilterren libreago torpezako gauzeetan, edo alan pekatu egoiten dabenai, inbidia edugi deusen, edo iños damu izan daben, zerren pekatu egin ezin eban, edo asko-

tan naturalezeen falteagati, edo zar izanagati, edo gexo izanagati, edo okasiñoa faltaduagati, eta erremedioen bazuk egin zituzan intenziño onetarako.

17. Ea irakurri daben liburu desonesturik, edo kantaadu daben kanta deshonesturik, edo berak egin, eta alaako danzarik egin daben, edo ianzi daben andraen erroparik, andreak gizoneenik.

ZAZPIGARREN ETA AMARGARREN MANDAMENTUA, EZTAGIGULA EZER ONSTU

1. Ea laguneen haziendea deseadu dabeenz beretako, deseetan dabela aberas izaitea, bere deseo deungaak kunplietako, edo benganzea artuteko batena, edo deshonestidatean bizi izaiteko, edo ez biortuterren, eta ez pagetarren iñori zor deusana.

2. Ea onstu dabeenz kantidaderen bat laguneen aziendarean, edo dañu egin deusan haziendan, edo errestituidu ezteusan edo pagadu zor deusana.

3. Ea ez pagatearren zor deusana lagunari, edo proximoari, dañurik artu daben etxea iaus-ten iakala, edo katigu egoten dala, kreditoa, eta konfianzea galduten dabela, daukalako obligazi-ñoa dañu oneek guztiok errestituietako.

4. Ea engafiurik egin daben erostean, salzai-tean, tratuan, bere ofizioan, daroeala laguneen haziendea iniustamente, edo saldu daben fiadu-rik gorago zeinda pagua ordu presentean ego-nik.

5. Ea iokatu deben, hazienda asko galduten dabela, bere semeena, eta emasteena, edo engañuril egin daben iokoan irabasten dabela bentajeagaz, edo iokatu dan ume familiakoakaz, eta esklabuakaz edo errelijiosoakaz.

6. Ea emon бага edugi daben bear egin deu-saneen alogera, edo salarioa kriaduena pagadu al daiala, eta ea limosnarik emon eztaben al dagiala, eta ea ikusirik nezesidade andian bere ateetara eldu pobrea, eta edugi ezpadau erruki-rik, antes esan deustezala berba deungaak, edo gero aen gatxik esan dabeenz.

ZORZIGARREN MANDAMENTUA EZTAGIGULA FALSO TESTIMONIORIK EREGI EZ GUZURRIK ESAN

1. Ea deseadu daben, lagunari onrea kendu, edo damu izan daben zegati daukan. Ibili daen traza eske, kenduteko, eta desonretako.

2. Ea ifini daben exekuziñotan deseo deunga au, berbeagaz, murmuretan dabela proximoen, edo eskribiduagaz koplaak, edo beste papel deungaak, aen kontra, agertuten dituzala aen linajeko faltaak, edo arimakoak, egozanak inok iakin бага.

3. Begiratu dagiala, egia bada bere esan dabena, falta andia bada, eta grabea, sekretoan egoana, dala pekatu mortala, erakustea eta esatea.

4. Ea kausa izan dan beste bazuk murmura-du dagien, itaunzeagaz, edo eskatuagaz, esan dagien, edo al dagiala bedekatu ezteusten, beste errazoa murmuraziñokoa.

5. Ea kontenturik artu daben, bein, edo askotan, enzuten ebala laguneen falta andia, lagun-

du, eta faborea emaiten ez eusala bere presen-
ziagaz.

6. Ea sekretoan egoan gauza graberen bat iragarri dabeenz zeinda eukan obligaziñoa sekretoan edugiteko, edo irigi daben laguneen kartarik, uste izanik egoala sekretoren bat, edo alan egoala uste izanik.

7. Ea edugi dabeenz iuizioko jestotik laguneen honreen kontra; ikusi бага begiakaz gauza deungarik, edo fundamentu бага ahek izanik guraso Sazerdote; edo erelijiosoak.

8. Azerengo ikusi begi ze biziza modu, edo ze ofizio daukan, eta ea kunplidu daben bere obligaziñoagaz, eta erakusi begio konfesoreari onetan ze pekatu egin daben leenago berak ikusirik, edo esan konfesoreari ze lege eta obligaziño daukan bere ofizioagaz, konfesoreak itandu deion.

SENAR EMAZTEN ARTEAN

Ea ezkondu zan kastidadeko botoa eginik eukala; edo aidegaz: birritan eskondurik dago-

an; ea ezkondu zan ixilik, edo intenziñorik ez eukala ezkonetako, engañetarren, eta aprobe-txetarren; ea matrimonio santua artu eban kontentua, eta deletaziñoa arzaitarren, eta ez jene-raziñoa edugiteren: elduten dan emazteagana dagoanean bere kostunbreakaz, edo izorrarik, seña botetako pelliburuagaz, bata besteari biortuten ezteusan matrimonioko zorra kausa justu baga. Ea bakea eta borondate bat eztaukeenz, zelo lar daukeenz, eta etxeko gauzaak-gati begiretan kuidadu gitxi; ea bear leuken baño erropa, eta galania geiago darabilden; senar emazteen bizizea egiten dabeen; ea semeai, eta kriaduai irakasten deuseen dotri-nean, eta kostunbre onak, ea conseju deungea emaiten deuseen; zerren bizi direan biziza deungeagaz; ea begiretan dabeen zelan bizi direan euren esekoak; ea emazteak obedezie-tan daben senarra gauza iustuetan; ea artuten deusan senarrari diru eserako bear eztirean gauzetarako; ea senarren faltaak esaten dituzan, eta erakusten dituzan beti.

TESTAMENTARIOENA

Leelengo ikusi begi, ea berantadu eban testamentua kunplietea, aprobetxetarren difuntuen ondasunai, edo deskuiduz, edo nagiz, igaro iakan urtebete eginzaga: ea leenago zorrak difuntuenak kunplidu eztituzan, aginduak kunplidu baño leenago; ea etxi eban kunplizaga difuntuen agindurik al egiala, ea saldu eban difuntuen gauzarik menos preziotan, eta balio eban baño ultra gitxiagotan, eta errematadu eragin eban iñor etorri, eta geiago emon legian baño leenago, agaz geldituterren, &c. Ea bere deskuiduz eta dilijenzia gitxi ifiniagatik galdu zan difuntuen haziendea, edo fruturik; ea alimenturik emon ezteusteen umezurzai, eta alargunari, legeak aginetan daben kasuetan, eta okasiñoetan.

Gero memoriara ekarri ezkerro bere pekatuak, zeinda da konfesiñoen leelengo parte; igaro bidi bigarren partera zeinda da kontriziñoa, eta dolorea, zerren ofendidu daben laungoiko guztiz poderoso, dolorea, eta damua dakarrela sarri bere biozera; memoria, eta gogoti igaraiten dabela Iesu Kristo gure launeen bondade fin baa-

koa, zeinda ofendidu daben izanik gure iauna, kriadu eta egin ginduzana, zeinek emon eban bere odola, eta artu eban eriozea gu erremedimietako egin eban zerua guretako, eta eginik guri ain ondasun eta obra andiak, oneen orde ofendidu dogun ainbat bider, barriro Kuruzean ifinten dogula, geure partez dan guztiagaz.

Gero igaroko dan bere gogo, eta memoriati pekatu mortal txeeenen grabedadea, eta pisua, dala ain andia, zeinda onen pagua egiteko bear izan zan Kristo gure laun, eta laungoikoen odola, nik merezietan nebala onengati sekulako tormentuak infernuan; eta galdu laungoikoa ekustea sekulako. Ikusiko dot oster, onetan artuten eban borondateen laburtasuna, aen torpezea, zitaldasuna, frutu gitxi, eta dañu andia, neure arimen peliburu andia, artu izan banindu eriozeak pekatu onetan, egon bear nebana infernuan, sekulako erreetan ninzala erremedio бага, dagozana legez egun asko, ene pekatuak baño txegoakgaiti.

Gero edugiko dot esperanza andia lesu Kristo gure launen miserikordian, zerren izanik ain andi, ta fin bakoa, da andiago, eta utra bentaja

egiten dabena fin bagea ene pekatuen grabedade, eta anditasunari, eta begiratuko dot dala neure aita, emon eustana bere odola eta onegaz pagadu zituzana ene pekatuak, nik egin negizan baño leenago, eta neuk baño geiago gura deustana parkatu, eta zerura eroan, eta alan edugi bear dot konfianza firmea parkaluko deustala.

Irugarrena, edugi begi, gero intenziño, eta propositu firmea, ez sekula pekaturik egiteko, launeen graziagaz, gero prokuraduko dot sarri intenziño au neure ariman ifintea firmeza andiagaz kenduten dodazala beralan okasiñoak, eta bizizea mudaetan dodala, eta kontu egiten dodala naxala arako seme prodigoa, aiteak emon eusan ondasunak galdu zituzana, bizioetan, eta bellakerietan, eta biortu zana oster aiteagana, bere esean artu legian kriaduzat alan biortuten dala sar zaiten Kristoen esean zeinen ordean dagoan konfesorea.

Gero au eginezkero esan begi al dagian dolore eta damurik andienagaz kontriziño au.

KONTRIZIÑO

Egin bear leukeana ainbat sarrien, edo iagiten danean, edo eziten danean, alkanzeetako bere pekatuen parkaziñoa.

Iesu Kristo ene launa, laungoiko eta gizon egiazkoa, ene kriadorea, eta zeure odolagaz erredimidu ninduzuna, nik dot damu neure bioz guztiagaz, zerren zu zareana izanik, eta amae-taan zaitudazana gauza guztiez ganean, ofendi-du zaitudazan, eta alan launa promes emaiten deusut firmeza andiagaz, eguntaño pekatu geia-go ez egiteko, eta zure majestadeen ofensako gauza guztietarean apartetako, konfeseetako, eta kunplietako, ifini degideen penitenzia, eta ofrezietan ditudaz neure pekatuen parkaziñora-ko, neure bizizea, obraak, eta trabajuak; eta zelan nagozun eske, alan daukat konfianzea, zeure bondade, eta miserikordia fin bakoagan, parkatuko deustezuzala neure pekatuak zeure odol preziosoan, eta pasiñoen merezimentuak-gati, eta emongo deustazula grazia bizizea emendetako, eta zeure grazian egoteko eriozea datorren artean. Amen.

ORDENA, ETA MODUA ZELAN, EDOZEINBERE KRISTIÑAUK TRAZAADU, ETA GASTADUKO DABEN DENPOREA, ETA EGUNA IAUNGOIKOEN SERBIZIOAN, ETA BERE ARIMEN PROBETXUAN

Goxean leelengo irazar didinean, egin begi kuruze santearen, eta gero esan begi; Bedeinkatu, eta alabadu izan dila Trinitade Santisimea, Aitea, eta Semea, eta Espiritu Santu launa, iru persona, ta laungoiko egiazko bat.

Ian zi dinean iasarri bidi belauriko, eta egin begi deboziñoan, zeinda da erraza, eta probetxu andizkoa.

Leelengo esan begi ene launa, ta laungoikoa, alabanzaak, eta graziak emaiten deusudaz, oraingino, eta puntu onegino egin deustazuzan mesedeakgaiti.

Bigarrena esan begi, launa nik ofrezietan deusut neure gorpuza, eta arimea, egun gogoti, igaro dagidazan esan dagidazan eta sufridu dagidazan gauza guztiak.

Irugarrena edugi begi, gogoa firmeza andia-
gaz, pekatu mortalegaz egunatan ez ofendietako
laungoikoa: eta egin begi deboziño brebe au,
pekaturik egin ze dakian egunatan. (Zerren diño
eskriptura sagra-deak) Zeure obra guztietan;
zeure azerengo fineen; eta eriozeen akordadu
zaitez, eta alan eztozu pekaturik egingo.

Da au deboziñoa. Esango dau iru bider Pater-
nosterra, eta Abe maria, Trinitade santeari,
modu onetan. Pater noster, eta Abe maria bat
Aita eternoari (zeini emaiten iakan gauza guz-
tien egitea) eskatuten iakala libradu dagiala
egunatan erioza desastradurean, eta bere erio-
zea izan zedila denpora бага, ezpada sacramen-
tuakaz, eta estatu onean.

Eta zerren eriozea ezkerro iatorkan bakotxari
iudizioko eguna, zeinetan emon bear daben
kontu bere bizizena, esan begi Pater noster eta
Abe Maria bat Semeari, laungoiko, eta Redenp-
toreari (zeini emaiten iakan Redenpziñoa) eskee-
tan iakala, dana legez juez artuko dabena kontu
au, emon degiola grazia ordenetako bere gau-
zaak egunatan; emon degion kontu ona aen
majestadea eskatu dagionean.

Eta zerren eriozeen ostean dator, kontu ona emon dagiana, ioango dala zerura, eta deungea emon dagiana, ioango dala infernura: esango dau beste Pater noster bat, eta Abe Maria bat Espiritu Santuari, dana gure laungoikoa (zeini emaiten iakan santifikaziñoa) eskeetan iakala emon degiola grazia firmea, eta arean iausten etxi ze degiola il din artean, eta libradu dagiala infernurean.

Deboziño au eginezkero esan begi.

laungoiko aita eternoa ofrezietan deusudaz neure obra guztiak.

laungoiko semea nik ofrezietan deusudaz neure berbaak.

laungoiko espiritu santu launa nik ofrezietan deusudaz neure pensamentu egun onetako guztiak, izan dituzan zure glorian, eta alabanzaan.

Eta oraziño egingo deuso bere angeru goarda alde eskoakoari, esaten deusala.

Neure Angeru Goardakoa, emon zineana gorde nengizun, argi egidazu, gobernadu, eta gorde nagizu egun onetan. Amen. Pater noster, Abe Maria.

EGUARTEAN

Etxerean urten dagianean leelengo bidea izango da elexara (utra urrin bizi ezpada) eta enzun meza deboziño andiagaz zer esango daben eleheen sarzaieran gero idoroko dau azerago. fol. 130.

Eta danean sermoea etxi ze begio enzuteari, deseogaz aprobetxetako; lagundu bekio, eta egon bidi sakramentu Santuen aurrean, exilik, eta deboziño audiagaz, edo zein bere lekutan dagoala, eta edugi begio reberenzia, eta deboziño andia Kuruzeari, santuen imajinai, eta egin begi berba erespeto andiagaz Aita santu, da beste preladu, Erelijioso, eta beste persona ele-xakoakgati, eta jeneralmente beste elexako gauza guztiakgati.

Bere konbersaziño, edo platikeetan esan ze beike burlako barbarik, besteren bat mindu, edo aserratu daiana.

Gustiak tratadu begiz kortesia, eta honestidade andiagaz.

Eta akordadu bekio guzurrik ez esatea, eta iuramenturik ez egitea, eta egin dagianean, esan begi beralan. Iesus neure launa izan dila nigaz, eta alan galduko dau kostunbre au, eta berba oneek esan begiz beste pensamentu deungarik etorri dakionean, egin begi Kuruze santearen señailea.

lokatu ze bidi kartaetan, eta beste ioko deungatan; inex egin begi konpañia deungaetarean, eta alper egotereanik, zerren da beste edozeinbere pekatuen prinzipioa.

Eztau esango ez kantaduko, ez irakurriko gauza desonesturik, antes aborrezidu, eta gorroto izan bear dituz.

Pobreen izan bidi adiskide andia, ez iñor bere menospreziadu, txeen txeen bada bere.

Iñax egin begi, eta ikaratu bidi, edozeinbere pekatu mortalegatik; zerren onegati geldietan da gizona, zerurean urtigirik, eta Infernura kondenadurik.

Iaaten dabenean, maia bedeinkatu begi, eta gorde begiz iru gauza, kortesia, tenplanzea, eta pazienza; kortesia iasarren, eta berba egiten; tenplanzea iaaten, eta edaaten dabela bear

dabena, eta ez geiago, pazientzia sufriduagaz iaaten emon ezpadagioe bere gustura.

Eta zerren iatosteko konbersaziñoan askotan etorri doaz porfiak, ezta baidaak, pendenziak, aserreetea alkarregaz, eta beste ofensa asko, da seguruena, eta oneena maia bedeinkatu, eta graziak emon ezkerro, ez gasteetea denpora andia platikaan konbersaziñoa danean okasiona-
dua zerren dagozan personak atarako direanak, orduan apartadu ainbat ondoen, paseo bat emon, edo irakurri liburuen bat, irakurten bada-
ki, edo ioan oraziño, edo deboziñoaren bazuk egi-
ten.

GABEAN

Errekojidu bidi bere etxera eta inax begi gabeen dabitzanai, eta ai iatordezan desgraziai.

Oera ezin baño leenago erloxu laurenez, belauriko iasarri bidi, eta egunatan gogora etorri iakazan esan dituzan, edo egin dituzan gauza guztiak ekarri begiz memoriara, zeinetan pekatu egin daben ikusiagaz, konzienziako examinea egin begi: daukaz onek iru parte.

Leelengo emongo deusaz graziak laungoikoari egin deusazan mesede andiakgatik, eta eskatu begio, emon degiola grazia ezauteko egunatan egin deusazan ofensaak.

Bigarrena ekarri begiz memoriara, berba, eta obra egin dituzanak goxerean, eta arrasa etorri artean (laungoikoari nai eztakiola) zeinbat bider pekatu mortala egin daben.

Irugarrena edugi begi gero garbai, eta dolore andi bat egin dituzan pekatuakgati, eta esan begi Pater nosterra, Abe Mariagaz, eta gero esango dau; launa nik prometietan dot, bizi izaittea, eta iltea fede elexa santa Eromakonan.

Gero oera ezinezkero esango dau iru bider Abe Maria Birjina Santisimeari, eskeetan iakala, alkanzadu degiola gaba atan bere arimako garbitasuna, esango dau onelan.

O Maria Santisimea, Birjina zineana, seña egin baño leenago, esan begi Abe Maria.

O Birjina zineana seña zenduanean egiten, Abe Maria.

O Birjina gelditu zineana, seiña eginezkero. Abe Maria.

Gero esan begi: Iesu Kristo ene launa, eta laungoikoa; alkanzadu egidazu gau onetako neure arimeen garbitasuna: gero oraziño egin Angeru goardakoari, esanik dagoana legez eta deboziño daukan santuai.

DEBOZIÑO PARTIKULAREN BAZUK

Elexan sartuten danean esango dau.

Sartuko nax launa zure etxean, eta zeure Tenplu santuan adoratuko zaitudaz, eta konfessaduko dot zure izen santua.

Ur bedeinkatua artu dagianean.

Ur bedeinkatua gaitarren parkatu bitez geure pekatuak. Amen.

Altara nagusien aurrean belauriko dagoan esan begi.

Adoreetan zaitudaz launa, eta bedeinkeetan, zerren zeure Kuruze santeagaiti mundua erredimidu zenduan.

Ostia gora doeanean.

Adoreetan zaitudaz Iesu Kristo gure launen gorpuz sagradua, zeinda Kuruzeko altaran izan zinean sakrifizio dignua mundu guztien redenzi-
ñorako.

Kalizea gora doanean.

Adoretan dot odol prezioso gure launeena, zeinek ezarririk Kuruzeko altaran garbitu zituzan gure pekatuak.

Azerengo Hostiari.

Zure eskuetan launa ofrezietan dot neure ari-
mea, zerren erredimidu gindizuzan launa, eta egiazko laungoikoa.

Maian iasarri gura dabenean iaten, edo afari-
tan esan begi Pater noster bat, eta bendiziñozat;
gu, eta jango doguna bedeinkatu dagiala iru per-
sona, da laungoiko batek daukana poderea,
aitea, eta semea, eta Espiritu santu launa.
Amen.

laun dagianean emongo deusaz graziak egin
deusazan mesedeakgati eta esan begi beste
Pater noster bat.

Abe Mariako Kanpaneak io dagianean, esan dagizanak berba oneek, irabazten dituz indulgenziak.

Angelus Domini nunciauit Mariae, & concepit de Spiritu sancto. Ave Maria &c.

Ecce ancilla Domini fiat mihi secundum verbum tuum. Ave Maria, &c.

& Verbum caro factum est, & habitavit in nobis. Ave Maria, &c.

ZE MODUTAN EGINGO DAN BIRJINA SANTISIMEN EROSARIOA

Birjineen Erosario osoak daukaz amabost misterio, bost gozosoak, bost dolorosoak, eta bost gloriosoak.

Bost gozosoak

Leelengoa Angeru san Grabielen anunziatzen Birjina santisimeari.

Bigarrena, Birjina Santisimen bisitazinoa, santa Isabelegana ioan zanean.

Irugarrena, Iesu Kristo aita eternoen semen
iaiakerea.

Laugarrena, Birjina Santisimeak presentatu
ebana bere seme Iesus seiña zanean tenpluan.

Bostgarrena, idoro ebana tenpluan Dokto-
reen artean.

Bost dolorosoak

Leelengoa, Kristo gure launeen oraziñoa,
egin ebana odolezko izerdiagaz ortuan.

Bigarrena, lotu ebeenean koluna, edo abeari,
eta an azotadu ebeena.

Irugarrena, aranzazko koronea ifini euseena.

Laugarrena, Kuruzea lepoan eroan ebana.

Bostgarrena, kruzifikadu ebeena Kalbarioko
mendian.

Bost gloriosoak

Leelengoa Kristo gure Jauneen erresureziñoa.

Bigarrena, zeruetara igo ebana.

Irugarrena, espiritu santu launeen etorrerea.

Laugarrena, Birjina santisimen asunziñoa.

Bostgarrena, aen koronaziñoa, eta aen mere-
zimentuen premioena.

Egingo da errosario au amar Abe Maria, eta Pater noster bakotxean kontsideretan dabela, eta gogoti igaraiten dabela misterio bat, eta gero ofrezidu Birjina santisimeari.

Egingo dau al badagi errosario osoa egunean egunean, ezpabere arena.

Astelenean ofreziduko dau misterio gozosoakgati.

Martizenean dolorosoakgati.

Eguaztenean gloriosoakgati.

Eguenean gozosoakgati.

Batikuan, eta zapatuan dolorosoakgati.

Domekan gozosoakgati.

Ezta ifinten misterio bakotxean ofrezimentua luze izanagatik.

**DEKLARAZINOA,
zer esan gura daben,
da erakusi gura deskuen
ornimenta sagraduak Sazerdoteak
Meza esateko ianziten dituzanak
eta mezako misterioak**

P: Esazu N. Meza enzuten zagozanean, zer zeure pensamentuti, eta gogoti igaraiten dozu?

R: Ezer bere ez, eztakit zer igaro eta.

Enzuzu bada, Mesa deboziño andiagoakaz enzun dagizun, eta leelengo erakusiko deusut ornamentu sagraduak zer erakusi gura deusken, eta gero Mezako misterioaren bazuk, eta zeremoniak.

**ORNIMENTA SAGRADUEN
DEKLARAZIÑO**

Amituak (zein da pañu bat leelengo sazerdoteak bururean lepora ifinten dabena) erakusten deusku pañua, edo euna ifini euseena Kristo

gure launari pasiñoko gabeen iudeguak burla egiteko.

Alba zuriak erakusten deusku Herodes erregeak burla egiteko ifini eusan erropa zuria.

Zinguluak (zeinegaz eta lotuten dan gerriti sazerdotea) erakusten deusku azoteak zeinzukaz azotadu ebeen Kristo gure launa.

Manipuluak (zeinda da eskubitur ezkerrekoan sazerdoteak ifinten dabena) erakusten deusku soka zeinzukaz eta gure launa lotu ebeen eskue-tati abe bateri azotadu ebenean.

Estoleak (zein da sazerdoteak ifinten daben idunerean bularretara kuruzez erakusten deusku sokea lotu ebeena idunetati; eta kuruzea lepoan eroan ebana Kalbarioko mendira, eta agaiti ifinten dau sazerdoteak kuruzeen moduan idunerean bularretara.

Kasuleak erakusten deusku erropea purpurazko ifini euseena Kristori burlazat.

Koroea buruan sazerdoteak dakarrenak erakusten deusku koronea aranzazkoa ifini euseena Kristo gure launari, eta alan ianzirik dagoanean erropa sagraduakaz, eztau burua iñori erakusiko, guztien artean daukan nagustasunagaitik

orduan; eta Meza esaten daben artean eztau estaletan burua erazusterren ze reberenziagaz Meza esan bear daben.

N: Kontentu andia emon deustazu ornimenta sagraduak zer semejeetan, eta erakusten deuskuen esanagaz.

M: Etxozu, eta iakin dagizu altareak, eta Mezeak zer semejeetan dabeen.

N: Esan egidazu deboziño, eta kontentuz Meza enzun dagidan.

M: Enzuzu. Altareak, eta areak (zein da arri zabal bat dagoana altaren erdian, kalizea, eta hostia ganean daukana) semejetan dabe kuruzea zeinetan da Kristok eriozea artu eban, eta ifinten da kuruze bat altareen ganean señaile, eta bandera Kristoenzat beti daukagun aurrean.

Kalizeak erakusten deusku sepulturea, eta pateneak ganeko arria.

Korporalak izara santea zeinegaz batu ebeen, et arpegi sagraduri ifini eusen pañua.

Eta beste Altarako ornamentak erakusten deuskue erreberenzia, eta garbitasuna, zeinegaz eta Meza esan bear dan.

Argizagi iraxegiak erakusten deuskue Kristo gure launak emon eban argitasuna bere legeagaz, eta dotrineagaz, eta erakusten dabee gura dabela aen Majestadeak gagozan datorreneko ardura andiagaz, daukaguzala argizagi irasegiak eskuetan, esan gura dau fedeagaz, karidadeagaz eta beste birtuteakaz etxadeten gagozala, aen Majestadeen etorreari eriozako orduan.

MEZA ETA SAKRIFIZIO SANTUEN ZEREMONIAK ETA MISTERIOAK

Saserdotea datorrenean ianzirik Meza esateko egiten dan Kristo gure iauneen personea zeinda da Sazerdote guztien ganekoa, ofrezietan dala bere aita eternoari.

Meza, eta sakrifizioak erakusten deuskue Kristo gure launeen bizizea, pasiñoa, eriozea, gloria, eta ebanjelioko dotrinea, zeinda erakusi euskun aen majestadeak.

Konfesiñoak, eta Kirie eleisonak (zeinzuk esan gura daben launa miserikordia), erakusten

deuskue munduan iausirik, eta dagoala miseri-kordien eske.

Gloria esateak, erakusten deusku Kristo gure iaun, eta salbadoren iaiakerea.

Epistoleak erakusten deusku testamentu zarreko dotrinea, eta landoneanez Baupristeena, zeinek Kristo baño leenago urten eban predikeetan.

Ebanjelioak erakusten deusku Kristoen predikaziñoa.

Kredoak erakusten deusku probetxu ebanjelio onek egin ebana gero munduan.

Gero sazerdoteak, ixilik prepetetan dabe-nean kalizea ofrezietako erakusten deusku Kristo gure launa, Lazaro erresuzita ezker, ausentadu zala il gura ebeen arterean, eta ofrezidu eusala aita eternoari bere pasiñoa.

Pobluagana biortu, eta esaten dau Sazerdoteak, orate fratres. Orduan esaten deusku eskatu gakiozala laungoikoari errezibidu dagiala sakrifizio zelebretan debena.

Suscipiat Dominus, &c. zeinetan eskeetan dira errezibidu dagiala laungoikoak sakrifizioa, sazerdoteen eskuetarik bere izen santaen ala-

banzarako eta enzuten daben, eta Elexa santen (zeinda dira Kristiñau fiel guztiak) probetxurako, eta zeinzukgatik ofreziduko dan sakrifizioa.

Prefazioak erakusten deusku Kristo gure iau-neen sarzaierea Ierusalemeko ziudadean, eta orduan emon eusezan alabanzaak seiñak, eta beti zeruan emaiten deusezanak Angeruak; da alan akabeetan da sanctus, &c.

Leelengo mementoak erakusten deusku Kristo gure launak egin eban oraziñoa ortuan.

Hostia, eta kalizea eregiteak erakusten deusku zelan Kristo gure launa eregi ebeen kuruzean, eta ezarri eban bere odol preziosoa gure erre-denziñoen prezio gaiti, eta beste gauza egiten direanak komunio artean sinifikeetan dabee Kristo kuruzean egon zan denporea.

Eregitea azerengo hostia kalizeagaz, sinifike-tan dau Kristo gure launen erresurreziñoa, eta onegaz alkanzadu eban honrea; iagiten zala aen gorpuz santua sepulturarean biktoriagaz, pasi-ñoan apartadu iakan odolagaz.

Eregiten da gitxi bat zerren izan zirean perso-na gitxi erresuzitadurik ikusi ebeenak, kuruzean ikusi ebenean konparaziñoan. Pater nosterren

oraziñoa baño asiten da leenago, oremus praeceptis salutaribus moniti, etc. zeinetan emaiten iaku dala Pater nosterren exzelenzia ain andia izan leiteala atrebimentua esatea Kristo gure launak agindu ezpaleuku zeinek egin eban, eta irakasi eban. Esaten da ulertu din moduan; zerren da guztienzako, eta alan fiel Kristiñau guztiak daukee obligaziñoa esketea laungoikoari an esketan dana. Sinifiketan dau Kristok egin zituzan oraziñoak eta partikularmente kuruzean esaten da komulgadu baño leenago gitxi bat; zerren da disposiziñorik oneena komulgeetako oraziñoa eta onetan eskatuten da beste gauzeen artean egunean eguneango ogia (zeinda da Ele-xako dotore gienak espliketan dabeena) esan gura dau Altarako sakramentu santua, eta peka-tuen parkaziñoa zeinda bear da komulgetako, arerioari parkeetea bear dana legez.

Agnus Dei, eta beste esaten direan gauzaak dira preparaziño bat komulgeetako. Eskeetan da sazerdotea Kristo gure launari (zeinda gizona dan partez deiegiten iako bildosa, edugi eban mansotasunagaitik, eta laungoikoa legez peka-

tuak kendu zituzalako) miserikordien, eta bakeen Elexeendako.

Komulgeeteak sinifiketan dau Kristoen sepultura: bat egitea elexeagaz, eta arima iustu bakotxagaz eta daukan amudioa gizonari, emaiten dala guztia, da bakotxagaz bat egiten dala. Gero esaten dira oraziñoak erakusteko, zelan Kristo gure launak oraziño egin eban, afalduzkeroko egun guren egunena; eta erakusteko komulgadu ezkeroko oraziño egin bear dala, eta laungoikoari alabanzak emon.

Ite Misa est, sinifikeetan dau Kristo gure launak esan zituzan berbaak bere Aprostuai bidaldu zituzanean predikeetan mundu guztiti.

Esaten dau Sazerdoteak publuagana biortuta, ulerretan emaiteko, erraz ioan deitezala bere bearrera, (zerren artu bear eleukee zer egin arik, eta leenago Meza enzun artean) Benedicamus Domino esaten direan egunak, dira gienean barauzako, eta tristezakoak, zerren oneetan daukee obligaziñoa gizonak egotea geiago oraziñoan. Bendiziño azerengo ezarten danak erakusten deusku Kristo gare launak emon eban bendiziñoa bere Apostoluai Aszensiñoako egunean, eta

Espiritu Santu launeen etorrerea. Akabetan da Mezea landoneanez Ebanjelisten Enanjelioagaz, zeinetan dagozan zarraturik Trinidadeko, eta Enkarnaziñoko misterioak, zerren beralan Aprostuak erakusi, eta predikadu ebeen Kristoen legea, eta aen misterioak.

Esanda au Meza enzuten dagozanak egon ditezan esaten direan, eta egiten direan gauzai ateniñoagaz, eta deboziño bear leukeenagaz. Ainbat brebeen esanik.

ERRAZOAREN BAZUK ESATEKO GEXOARI ERIOZAKO ORDUAN DAGOANEAN

Iesu Kristo gure launak ez solament etxi eus-
kun exenplua, eta moda bizi izaiteko, baea one-
zaz ostean, zelan ilgo ginean, eta geure eriozea
igaroko genduan, eta alan bear da eriozako
orduan dagoanak begiratu dagiala, zelan Kristok
eriozea artu egian, alan iarraitu bekio bide oneri,
eta ioango da seguru. Leelengo Iesu Kristo gure
launak oraziño egin eusan aita eternoari, esaten
eusala klarifikadu nagizu aita ordu onetan; alan
Kristiñauak esan begio aita eternoari aita eter-
noa argia indazu ordu onetan.

Iesu Kristo gure launak egi eban sentimentu
andia pekatuakgatik esaten ebala Deus Deus
meus respice in me quare me dereliquiste longe,
&c. Kristiñauak negar egingo dau zizpuru andia-
gaz, eta biozerean bere pekatuakgaiti, eta laun-
goikoari miserikordien eskatuko iako.

Kristok parkatu esaten kruxifikeetan ebeenai, eta aekgatik oraziño egin eusan aita eternoari.

Alan eriozako orduan dagoanak begiratu bear dauka iñori ofensarik egin deusan eta dauko obligaziñoa parka eskeetea, eta berak arerioari parkatutea.

Iesu Kristo gure launak disponidu, eta ordenadu zituzan bere gauza guztiak eriozako orduan enkargetan eusala ama berea diszipulo landoneanez Ebanjelisteari.

Alan Kristiñau onak ordenadu, eta disponidu bear dituez bere gauzaak diskreziñoagaz, eta prudenziagaz.

Au egin ezkeru Kristo gure launak esan eban, zure eskuetara launa neure arimau enkomendetan dot.

Berba oneek eurok esan bear dituz Kristiñauak bere eriozako orduan.

Finean burua eresi, eta arimea gorpuzerean bidaldu eban.

Alan egin begi Kristinauak burua eresiagaz, eta laungoikoen borondateen bean bere borondatea ifiniagaz.

Akordadu zaite orain Kristo gure launeen, eta aen majestadeen miserikordia andien eta zerzugaiti iragaro eban; ezta au orduan pensamentua aen iustizian edugiteko ezpada miserikordian. Bazauku Kristo gure launeen figura au kruzifikadurik? ez zaituz, ez gorroto au egin ebanak, eta igaro ebanak zugatik, eta aen bondadeak gurako eztau zure arimea galdu didin zeinegaiti berea kuruze onetan emon eban.

Irigi egizuz begiok eta prinzipalmente fedekoak; arnasa, eta animo arrezazu, alboko zauriari ikusiagaz, zeinda irigi izan zan, emeti urten legian zure iustifikaziñoak, eta alan gelditu zan itxi бага, ulertu dagizun, direala doneak, eta mesedeak garbairik eztaukeenak, eta daukazula zauri onetati sartuteko zerura ate irigiak, eta zabalak.

Mun egiozu amudioagaz eta fedeagaz albo odolez bete orreri zeinen odolak garbitu zituzan munduko pekatuak, mun egiezu esku onei dagozanei zeure pekatuakgati kuruzean iosirik, eta alan edugi begi zure arimea konfianzea bildur бага, eta duda бага dala irabazte bat galzaite-rik edugi ezin leiana.

Esan egizu zeure biozagaz, launa zeure eskuetan enkomendetan dot neure arima au. Da bear dozu orain ulertu, eta entendidu egin ebela zeure arimea esku oneek, zeinetan ifinten, eta enkomendeetan dozun; eta alan egon zaitez duda бага ifiniko dabela kobrutan, bere miseri-kordia andiagaz egin eban launak bere poderea-gaz.

Au alan izanik, erraz esan daizu, bada, launa, zure eskuok egin baninduen, eta modu emon deusteen urtigi ze nagizu lagunen eskuetako obra egina legez.

Ezaun egizu zeure obrea nigan, zerren deun-gea banax bere, nax zure kriaturea, da nax zure elexako mienbrua, nax launa obrea egin zendua-na, zeure ezkuakaz, eta ardura andiagaz, eta alai etxi ze nagizu, baea antes eroan nagizu zeure bistara, eta gloria zelestialen gozaetan zeure miserikordiatik. Amen.

LAUS DEO

A impressio d'este livro, feita na imprensa do jornal *A Folha*, em Vizeu, terminou em 12 de dezembro de 1893, vespera do dia de santa Luzia.

Bizeuko *A Folha* deitzen dan Bertaerakoaren Makinan, 1893 Urteko Lotasillaren amabigarren Egunean edo bigarren Martizenean, Luzi Saindaren Bijilia dalarik, laungoikoaren Letartaz, Moldizkiratzea izan zan amaitua.